

AZPEITIKO LGTBI+ ERREALITATEEN ERRADIOGRAFIA ETA NEURRIAK

Azpeitia 2024



AURKIBIDEA

1. Gerturapen bat. Sarrera	4
2. LGTBI+ errealitateetara hurbiltzeko lehen urrats bat. Marko teorikoa	7
3. LGTBI+ eskubideen inguruko araudia	16
4. Jasotzeko erremintak. Metodologia	29
5. Oihu bat isiltasunean. zauri eta ardura kolektiboak. Diagnostikoa	33
5.1. Non bizi (izan) gara?	35
5.1.1. Tradizio bati jarraika	36
5.1.2. Non gaude lgtbi+ pertsonak azpeitian?	40
5.1.3. Espazio publikoa eta aisia.	44
5.1.4. Udalaren esku-hartzea	49
5.1.5. Indarkeriaz ari gara	53
5.1.6. Sexilioa	63
5.2. Zeri esker biziraun dugu?	67
5.2.1. Nor izan garen	69
5.2.2. Babesa, ezinbestekoa	75
5.2.3. Dena aldatzen da	80
5.3. Nolako herrian bizi nahi dugu?	83
5.3.1. Talde antolakuntza	85
5.3.2. Gizarte eta familia antolakuntza	87
5.3.3. Euskara eta euskal komunitatea	88
5.3.4. Hezkuntza	92
5.3.5. Epilogo: ametsetik ekintzetara	94

6. Orduan, zer? Neurriak

96

1. GERTURAPEN BAT

Sarrera

54 urte pasa dira dagoeneko 1968ko ekainaren 28an Stonwelleko matxinada eman zenetik, LGTBI+ komunitatearentzat inflexio puntua izan zen data seinalatua. Orduan gorputza jarri zutenak, ordea, medio tradizionaletan erakutsi digutenaren kontrara, ez ziren espazio publikoan ohikoagoak izan diren gizon homosexual zuriak izan, kale egoeran zeuden trans emakume arrazializatuak izan ziren, horietako bi erreferente nagusi ditugu Marsha P. Johnson eta Sylvia Rivera. Jaurtitako lehen adreilu horren ondotik etorri zen 80. eta 90. hamarkadan IHESaren kontrako borroka, LGTBI+ komunitatea bete-betean gurutzatu, zigortu eta estigmatizatu zuen pandemia. Serofobiari aurre egin eta farmazeutiken interes ekonomikoak salatzea izan ziren aldarri nagusiak, baita praktika sexual seguruen bermerako bitarteko publikoak bermatzea ere. Gogor jo zuen IHESAk gure herrian ere.

Euskal herrira etorrira, 1977an EHGAM sortu zen Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua heteroarautik kanpo geratzen diren bestelako desira eta identitateen eskubideen defentsan borrokatzeko helburuarekin. 1978an Gipuzkoako lehen LGTBI+ martxa deitu zen. Bestetik, 1983an / *Encuentros de Lesbianas de Euskadi* izeneko lehenengo lesbianen jardunaldiak ospatu ziren Euskal Herrian, eta aurten, 40 urteren ostean, *Euskal Herriko bollotopaketak* antolatu dira berriz ere, Leitzan. Ordutik, asko izan dira gure inguruan zein bertatik kanpo emandako borroka, aldarrikapen eta festa, eta Donostiako Bulebarreko errepidea lehen aldiz zapaldu zuten haietatik loratu dira beste mila lorpen.

Egun, LGTBI+ errealitateek gure egunerokotasunean geroz eta toki gehiago duten arren, bizitza aske eta gozagarriak izateko mugak handiak dira oraindik ere. Ikusgarritasuna ezinbestekoa da, izenik ez duena ez da existitzen, denok behar dugu komunitate bateko kide izan eta harremanak eraiki eta, horretarako, errekonozimendu kolektiboa behar da, baina ez bakarrik. Hartagoa joan behar gara, eta LGTBI+ pertsonen bizitzak erdigunean egon ahal izateko baldintza kualitatibo eta integralak aplikatu behar dira.

LGTBI+ pertsonen bizitzak aske eta gozagarriak izan behar direla aipatu dugu, askotan, zaurgarritasunetik, minetik eta indarkeriatik direlako irakurriak soilik bizitza hauek, estigma batzuk indartuz eta ezinegona eragiten duen toki bat sortuz, ezleku bat. LGTBI+ bizitzak beste prisma batetik irakurtzen hasi behar dugu, plazeretik eta gozagarriak izatetik, bizitzeko zilegi diren bizitza moduan hain zuzen ere. Indarkeriaren prebentzioa eta esku-hartzea garrantzitsua da oso, baina beste korapilo batzuetara begirada zabaltzen hasteko ordua da.

Gainera, paradigma aldaketa bat eman behar dugu, aniztasunaren aldarrikapenetik haratago joan eta erroko faktoreetan ipini behar dugu fokua, arauan alegia. Aniztasuna errealitate zehatz bat da, denok gara anitzak eta ezberdinak, eta komunitate batean aberasgarria izan daitekeen arren, ez da aldarrikapen bat, ebidentzia bat baizik. LGTBI+ pertsonen haien bizitzak modu duinean bizi ahal izateko baldintza mugatzaileak identifikatu eta horiei jarri behar diegu limitea, araua ez delako zerbait abstraktua.

Horregatik guztiagatik, begirada transbertsala izango duen ibilbidea proposatzen dugu, Azpeitiko errealitate, istorio, kontakizun, min, amorru, hausnarketa, bizipen eta aldarrikapenak jasotzen dituen narratiba lehenik, eta hutsune, korapilo, behar eta indarguneen arabera neurriak bigarrenik, udala goitik behera zeharkatuko dutena.

2. LGTBI+ ERREALITATEETARA HURBILTZEKO LEHEN URRATS BAT

Marko teorikoa

ANIZTASUNA VS ARAUA

LGTBI+ politikak, beste edozein politiken moduan, ez dira neutroak, eta ikusmira ezberdinek gurutzatzen dituzte. LGTBI+ errealitateaz ari garenean, ez gara soilik desira, pertzepzio edo identifikazio indibidualez ari, sistema oso baten anomalia gorpuzteaz ari gara, berezkoa omen ez dena, antagonikoa, marjinala eta ezkutukoa. Pertsona batzuen beharrak erdigunera ekartzeaz ari bagara, horiek, historikoki baztertuak izan direlako izan da eta, beraz, beste zerbaitek hartu izan du erdigunea. Zentrala denak eragiten du boterea (Foucault, 1977), eta horren araberrako arauak sortzen ditu (juridikoak, sozialak, moralak...), bertan sartzen ez diren bestelako nolakotasunak alde batera utziz, eta horrek, indarkeria sortzen du.

Aniztasuna aldarrikatzea ondo dago, bestelako gorputz batzuen bizitzak eta erabakiak ikusgarri bihurtzen direlako, baina haratago joan behar gara, ezin da aldarrikapenaren erdigune izan. Denok gara ezberdinak, aniztasuna errealitate material bat da, baina norberaren nolakotasunetan ezin da jarri azpimarra, baizik eta arautik ateratzearen praktikak suposatzen duen indarkerian. Anitzak gara beste batzuek arau zehatz eta zurrun batzuk eraiki dituztelako, eta gure bizitzak bizigarriak izango dira, arau horiek sortzen dituzten zapalkuntzei aurre egiten badiegu. Hortaz, LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetu nahi baditugu, boterea eta indarkeria non eta nola eraikitzen den ulertu behar dugu, horiek aplikatzeko kanalak identifikatu, eta mugak batzuk ezarri.

SEXU-GENERO SISTEMA

LGTBI+ bizitzak eta errealitateak ulertu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu lehenik eta behin patriarkatuaren oinarriak zein diren ikusi, eta sexua eta generoa zer eta nola eraikitzen diren jakitea. Horretarako, gako eta teoria garrantzitsuenetatik ibilbidea egingo dugu oinarri batzuk ezartzeko.

Simone de Beauvoir filosofoak “Bigarren sexua” (1949) lanean, argudiatzen du emakumea historikoki definitua eta eraikia izan dela gizonaren menpeko izateko, gizona gizaki nagusizat jo izan baita. Beauvoirrek dio mendekotasun hori ez dela naturala, ezta saihestezina ere, baizik eta genero-desberdintasuna betikitzen duten eraikuntza sozial eta kulturalen emaitza dela.

Beauvoirren ideia nagusietako bat honako hau da: "ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da". Esaldi horrekin, Beauvoirrek nabarmentzen du generoa ez dela baldintza biologiko bat, baizik eta sozialki eraikitako identitate bat, emakumeei jaiotzetik inposatzen zaiena. Emakumeak gizartean mendeko rolak eta posizioak betetzeko sozializatzen direla argudiatzen du, eta horrela, haien askatasuna eta aukerak mugatzen dira.

Beauvoirren (1949) publikazioa hau teoria feminista okzidentalaren abiapuntu nagusi moduan definitu izan dute autore feminista askok, Donna Haraway-ek (1995) esaterako, baieztapen hau teoria feminista modernoren abiapuntu moduan azpimarratuz.

Sexu-genero sitema ulertzeko beste egile feminista garrantzitsu bat Gayle Rubine da, hark proposatu zuen sexu-genero sistemaren nozioa (1975). Horrela definitu zuen:

Gizarte batek sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzeko xedapen multzoa, non eraldatuak izan diren giza beharrak asetzen diren bertan (1986: 97)

Sexu biologikoari erreferentzia eginez, Jule Goikoetxeak (2021) sexu biologiko moduan definitua izan dena prozesu material bat dela aipatzen du, hau da, gorputz horiek produzitu egiten dira, ez dira neutroak eta, beraz, sexu biologikoaz dagoen ikuskera esentzialistarekin hatsi egin behar da. Horrela azaldu zuen Jule Goikoetxeak Berria egunkarian eginadako elkarrizketa batean:

Patriarkatua, dominazio maskulinoaren sistema historiko politikoa den aldetik, gorputz zehatzen produkzioan oinarritzen da, eta gorputza da gure lehen materialitatea; beraz, gorputz sexualizatuak sortzea, zeintzuen arabera egikaritzen den patriarkatua, prozesu material bat da: emakumeak eta gizonak egin egiten dira, zuriak eta beltzak bezala. Materiala versus sinbolikoa, ekonomikoa versus kulturala zatiketa ilustratu androzentrikoen kontra gaude: patriarkatua legitimatzeko mekanismo bat dira. (Asensio, 2022)

Azkenik, genero-eraikuntza ulertzeko ezinbestekoa zaigu "Genero nahasmendua: Feminismoa eta identitatearen subertsioa" Butler, Judith. (1990). Lan honetan, Butlerrek argudiatzen du generoa ez dela pertsona baten berezko edo funtsezko ezaugarri bat, baizik eta denboran zehar errepikatzen eta mantentzen diren ekintza eta portaera batzuk.

Butlerrek "performance" kontzeptua erabiltzen du genero-arauak portaera, keinu, rol eta adierazpen jakin batzuk errepikatuz nola ezartzen eta mantentzen diren deskribatzeko. Argudiatzen du generoa

ez dela berezko edo daukagun zerbait, baizik eta erritu eta praktika kultural jakin batzuen jarduera errepikatuaren bidez egiten eta frogatzen den zerbait.

Aldi berean, generoaren eraikuntzan "errepikapenak" duen garrantzia ere nabarmendu zuen Butlerrek. Genero-arau eta -praktika jakin batzuk denboran zehar errepikatzeak lagundu egiten genero-identitateak gizartean egonkortzen eta iraunarazten, etengabea modu inkontzientean barneratu egiten direlako, eta egunerokotasuneko praktika guztietan azaleratzen da, gorpuzte automatizatu moduan.

Gainera, etengabeko birdefinizio honetan, genero eraikuntza bera termino performatiboetan aztertzeaz gain (Butler, 1990), sexua bera ere eraikuntza bio-medikua dela ere azpimarratu zuen.

Laburbilduz, Judith Butlerren "performance" eta "errepikapenaren" teoriaren arabera, generoa eraikuntza sozial eta kulturala da, eta zenbait ekintza eta portaera errepikatuz ezartzen eta mantentzen da.

Hortaz, nahiz eta sexua eta generoa modu ezberdinduan azalduko ditugun jarraian, uste dugulako ulertzeko errazagoa dela, eta baita estrategia feminista moduan ere, patriarkatuaren biziraupenerako gorputzen sexuatzeko prozesu berdinen markoan kokatu behar ditugu biak.

- Sexua. Gehienetan genitalitatea kontuan hartuz egiten den sailkapen bio-politikoa da, *arra/ emea* bitartasunean laburtzen dena. Kasu batzuetan, beste parametro batzuk (hormonak, gonadak, kromosomikoak) ere kontuan hartzen ditu, beti ere, begirada bio-mediko batetik bitartasun hori indartu eta definituz. Kanpoan utzi eta zapaltzen ditu intersexualak (bi kategoria horietan sartzen ez diren gorputzak).
- Generoa. Eraikuntza honek ere bitartasuna indartzen du, hain zuzen, jaiotzean egotzitako sexuaren gainean kultural eta sozialki egotzitako balio sistema baten baitan, alegia, *gizon/emakumeak* sortzen ditu. Horien gainean eraikitzen da baita ere, *maskulinitatea/feminitatea* binomioa, zeina askotan sexuari egotzitako balioekin argudiatzen saiatzen den (biologia, hormonak...) baina baita, gizarteko arau estetiko bat eraikitzen duen: *genero adierazpena* (alegia, nire generoa nola erakutsi, aditzera ematen dudan). Eraikuntza honetan, trans aterkipean (aurrerago definizio zehatza) dauden gorputz guztiak zapaltzen dira, alegia, bitartasun hori hausten dutenengan. Baita, genero adierazpenak haiei egotzitako generoak traizionatzen dituztenengan.

Sexua eta Generoa zer diren definitu ondoren, ikerketan zehar agertuko diren ondorioak eta kategoriak ulertu ahal izateko, garrantzitsua egiten zaigu ondorengo beste hiru kontzeptu hauek ere argitzea.

- **Genero identitatea:** Bakoitzak bere generoarekiko duen lotura, pertzepzio eta identifikazio maila da. Batzuek, jaiotzetik ezarritako generoarekin eroso eta identifikatuak sentitzen dira, baina beste batzuk, ordea, ezarritako generoarekin ez dira eroso eta identifikatuta sentitzen, eta genero trantsizio bat abiarazten dute haien buruak eta inguruak beste genero kategoriatan identifikatzeko. Jaiotzerakoan hain gorputzaren arabera ezarritako generoarekin eroso eta identifikatuta sentitzen diren pertsonak definitzeko “Zisgenero” hitza erabiltzen da, eta jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatuta sentitu ez, eta trantsizio prozesu bat abiarazi duten pertsonak izendatzeko, “Transgenero” hitza erabiliko dugu.
- **Genero adierazpena:** Norberak bere genero identitatea adierazteko duen era (Izena, estetika, gorpuzkera, ahotsa...).
- **Sexu-lehentasuna:** Pertsona batek beste genero batetik, genero berdinekiko edo genero ezberdinekiko duen erakarpen emozional, erromantiko eta sexuala da. Baita beste inorekiko erakarpen emozional, erromantiko edo sexualik ez izatea ere.

Kontzeptua	Eraikuntza	Bazterkeria
Sexua	Ar / Eme	Intersexualitatea
Generoa	Emakume / Gizon (cis)	Trans errealitateak (+trabestiak, queerrak, dragak, emakume maskulinoak, gizon femeninoak, ez bitarrak, bestelako genero adierazpenak...)
Lehentasun edo desira sexuala	Heterosexualitatea	Lesbiana Gay Bisexualak (+bestelako desira definizioak)

HETEROARAUA

Aurretik aipatu moduan, heterosexualitatea sexu-lehentasunaren barruan kokatu genezake, erromantikoki, erotikoki edo afektiboki nor desiratzen duzun izendatzeko beste kategoria bat izan daitekeelako.

Heterosexualitatea araua dela esaten dugunean, ordea, ez dugu inoren desira indibiduala zigortu edo epaitu nahi, baizik eta gizartearen antolaketa eta harremanak arautzen dituen sistema moduan definitu nahi dugu, botere-harremanen eta genero-eraikuntzaren konplexutasuna ulertzeko.

Heterosexualitatea modu integralean ulertzea ezinbestekoa da. Aipaturiko diskurtso biologizistak medio, heterosexualitatea medikuntza okzidentalak kategorizaturiko ar eta emearen arteko harreman afektibo-sexual moduan ulertu izan da soilik, naturala, arrazionala eta berezko jardun moduan gainera. Heterosexualitatea, ordea, askoz gehiago da, autore askok aipatu moduan, erregimen politiko bat. Stéphanie Papinek (2014) esan bezala, heterosexualitatea erregimen politikoa da norma delako. Heterosexualitatea gure jarreretan dago, gure harremantzako moduetan, familian, eskolan, eta plazerean. Berezkotzat ulertzen da heterosexualitatea, jaiotzetik dagoena, lehen galtzerdietako koloretik, familiako kideek urte gutxirekin bikotea dugun galdetzetik, gure jardun afektibo-sexualetan genitalak plazer-bide bakar moduan ulertzeraino.

Elisabeth Badinterek (1993) XIX. mendean norma moduan inposaturiko instituzio sozial, politiko, ekonomiko eta sinboliko moduan definitu zuen. Heterosexualitatearen sorreraren ardura zenbait sexologoen gain uzten du, heterosexualitatea homosexualitatearen kontraposizio eta dikotomia positibo moduan kokatzeko, horrela, sexualitate txar eta onaren arteko eraikuntza sendotuz.

Oscar Guaschen (2000) arabera, maitasunetik at, bizi-eredu hegemoniko bat izan da azken 150 urteetan. Heteroaraua soldatapeko lanaldi eta jendarte industrialarekin jaiotzen da. Produktzio kontua dela dio, umeak produzituko dituzten beste umeak produzitzea hain zuzen ere, modu horretan langileak produzitu, armadara joango direnak produzitu, eta esku-lan merkea sortuz.

“Escupamos sobre Hegel y otros escritos sobre Liberación Femenina” Lonzi, Carla (1978) testuan, heterosexualitatea dogma moduan definitzen du, emakumeak gizonaren osagarri “natural” bezala ulertzen dituen dogma, erreproduktzioaren diskurtsoaren bitartez sostengatzen dena.

Monique Witttingek “El pensamiento heterosexual y otros ensayos” (1992) liburuan aipatu moduan, hitzaren jatorri anglosaxoitik hasita soilik, “straight”, heterosexualitatea modu politikoan ulertzen hasteko pista ugari ematen dizkigu. Hitzak zuzena esan nahi du ingelesean, eta bere baitan bestelako sinbolismo handiak biltzen ditu zuzentasun horretatik abiatutik. Honek, bestelako kontzeptu antagonikoak sortzen ditu, dikotomiak, zuzentasunaren kontrakoak direnak ezinbestean, eta horrenbestez, heterosexualitatea zuzentasuna bada, desagokia, antinaturala eta okerra dena, homosexualitatea da.

Wittingen (1992) dio feminismoak erabilitako emakume kontzeptua irudizko subjektu bat besterik ez dela, baldintzatua eta ezinbestekoa dena pentsamendu heterosexualarentzako. Sexuen arteko diferentzia, gizon eta emakumezkoen artekoa hain zuzen ere, medikuntza eta biologia justifikazio moduan erabilia zilegiztatu da, sexu kategoria politikoa dela ezkutatuz, eta pentsamendu heterosexuala sustengatuz. Beharrezkoa eta ezinbestekoa da gizon eta emakume kategoriak modu politiko, irudizko zein sinbolikoan desagitea, zioen Witttingek (1992), ez daudelako bi sexu, zapaltzailean den bat eta zapaldua den bestea baizik. Hortaz, opresioa da sexuak eraikitzen dituen eta ez alderantziz, aurretik esan moduan, kapitalismoak bizirauteko zapaldu-zapaltzaile harremanak behar dituelako ezinbestean.

Horrenbestez, Wittingen (1992) aburuz feminismoarentzat ezinbestekoa da emakumea beharrezko kategoria moduan ulertzeari uztea, pentsamendu menderatzaile heterosexualaren sorkuntza delako, eta ez gizartearen aurretik dagoen esentzia. Ezinbestekoa da heterosexualitatea, nola ez, termino materialistetan ulertzea. Aurretik behin baino gehiagotan aipatu dugu kapitalismoak ezinbestean subjektu antagonikoak behar dituela, binomioak, zapaltzaile eta zapalduak hain zuzen ere. Heterosexualitateak gizona den hegemonia bat sortzen du, zapaltzailea dena, eta boterea baliatzeko emakumearen kategoria sortzen du, eta horregatik ulertu dezakegu heterosexualitatea erregimen politiko moduan.

Beraz, norberaren desira indibidualetik haratago, heteroaraua produzituak diren bi sexuak antagonikoak eta ezinbestean osagarriak direnaren ideia sostengatzeko mekanismoa da, maitasunaren izenean, emakumeek dohainik zaindu dezaten eta bizitza sostengatu dezaten.

LGBTI+ ERREALITATEAK

Hartara, lan honetan, sailkapen eta zapalkuntza hauek guztiak definitzeko, LGTBI+ siglak erabiltzea erabaki dugu arau guzti horietatik at dauden gorputz, praktika eta kolektiboak izendatzeko. Ez inola

modu hertsian, bai, ordea, arau nolabaiteko disidentzia afektibo-sexualetik apurtzen duten horiek definitzeko.

Ez da, ordea, hitz propio bat, sigla segida bat da, eta Izki bakoitzak errealitate ezberdin bati egiten dio erreferentzia. Beraz, hau erabiltzen dugunean zertaz ari garen ulertu ahal izateko, jarraian azaltzen da bakoitzaren definizioa.

- Lesbiana (L): genero bereko beste pertsona batek emozionalki, afektiboki, erromantikoki eta/edo sexualki erakartzen duela sentitzen duen emakumea.
- Gay (G): genero bereko beste batzuekiko erakarren emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duen mutila.
- Trans (T): Gorputzaren arabera jaiotzean esleitutako generoarekin ados edo eroso ez, eta haien buruak beste genero kategoriatan batean identifikatzen duten pertsonak.
- Bisexualitatea (B): genero bat baino gehiagorekin erakarren erromantikoa, afektiboa eta/edo sexuala duten pertsonak, ez derrigorrez aldi berean, ez derrigorrez modu berean eta ez derrigorrez maila eta intentsitate berean.
- Intersexuala (I): Medikuntzak kategorizatzen dituen sexu banaketa (ar/eme) bitarretik kanpo kokatzen diren gorputzak, haien genitalak, hormonak, ugal apartuak edota kromosomak ezin direlako kategoriatan bitar horietan kokatu.
- Plus (+): Bestelako aukera eta lehentasunak jasotzen ditu, hala nola, asexualitatea, beste pertsonetako erakarren erotikorik ez duten pertsonak.

ANIZTASUNA KONPLEXUTASUNEZ IRAKURRIZ

Bestalde, jakitun gara, akronimo eta sigla definizio hauek eztabaida eta aldatetara lotuta daudela eta, ikerketan zehar ere modu irekian mantenduko ditugu. Esaterako, “Queer” kontzeptua barnebiltzen duen “Q” letra ez dugu erabiliko, izan ere, eztabaida zabal asko baitaude “Q” hori identitarioa edo praktika batzuei lotua den, edota “LGTBI+” siglen sinonimo gisa erabiltzen den. Hala ere, norbaitek bere burua Queertzat badu, horrela hartuko da kontuan ikerketan.

Baita alderantziz ere, ez da beharrezkoa pertsonen beren burua akronimoen siglekin identifikatzea. Izan ere, nahiz eta beren burua identifikatu ez, LGTBI+ fobiakerin lotutako indarkeria edo diskriminazioak jasan ditzakete. LGTBI+ siglekin identifikatzen ez den norbait, baina bere identitate, desira edota praktikek zisheteroaraua auzitan jartzen badute, ikerketa honetan ere haren lekua izango luketela, alegia.

Azkenik, zeharlerrotasuna erronka gisa planteatzen dugu, jakitun garelako LGTBI+ siglen parte izateak ez zaituela beste gizarte mailaketa guztiengandik aldentzen, are gehiago, zapalkuntza edo pribilegioen harremana irauli edo indartu dezaketela. Izan ere, gizartean dauden beste zapalkuntza lerroek (klasea, arraza, kapazistismoa, erlijioa, adina, jatorria...) eragin eta konbinazioak sortzen dituztela konplexua den zapalkuntza sistema honetan. Hau da, ez da gauza bera, Lesbiana baina zuria eta klase altuko europearra izatea, edo Gay arrazializatu eta aniztasun funtzionala duena. Beraz, zapalkuntzak harremanean eta kontestuan ulertu behar dira, gurutzatuta daudelako.

3. LGTBI+ ESKUBIDEEN INGURUKO ARAUDIA

Marko legegileari dagokionean, LGTBI+ pertsonak oraindik ere hutsune eta traba batzuei aurre egin behar dieten arren, azkeen urteetan aurrera pasu handiak eman dira LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeko legeen diseinu eta aplikazioan. Aurkezten den proposamenaren euskarri juridikoa azaltzen da Jarraian, proposatuko diren neurri eta politiken basaleku legala hain zuzen ere. Proposamen hau eta ondorengo ibilbidea eratzeko, lau araudi-esparru nagusi hartuko ditugu kontutan:

- Nazioarteko arau esparrua.
- Europar Batasuneko arau esparrua.
- Espainiar estatuko arau esparrua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua.

Nazioarteko arau esparrua

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)
 - 1. Artikulua “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.”
 - 2. Artikulua “Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.”
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)
 - 2.1. Artikulua “Itun honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du bere lurraldean dauden eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei itun honetan aitortutako eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste era batekoa, jatorri nazionala edo soziala, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-baldintza kontuan hartu gabe.”

- Yogyakarta-ko printzipioak (2006): Giza Eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitatearen alorrean ere aplikatzeari buruzko printzipio-multzoko bat dira, estatuak LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzera bultzatuz.
- Homofobiaren eta sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurkako adierazpena (2008ko abenduaren 18). "Pertsonen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak ezabatzea, haien sexu-orientazio eta genero-identitatea edozein izanik ere."
- Giza Eskubideen Kontseiluaren sexu-orientazio eta genero-identitatearen inguruko 17/19 ebazpena (2011). "Giza Eskubideak, Sexu Orientazioa eta Genero Identitatea" izenburua duen ebazpenak mundu osoko sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kezka jorratzen du, eta neurriak hartzeko eskatzen die estatuei, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeria eta diskriminazioa prebenitzeko eta eta horren gainean esku-harzeko.
- Giza eskubideen, Sexu-orientazio eta Genero- identitatearen inguruko NBEko Batzar Nagusiaren ebazpena (2012ko ekainaren 4ean). LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria giza eskubideen urraketa direla onartzen du, eta estatu kideei dei egiten die neurriak har ditzaten urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko. Ebazpenak, halaber, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioari eskatzen dio gaiari buruzko txosten bat prestatzeko eta informazio-bilera bat antolatzeko, LGBTI pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronkak eztabaidatzeko.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 27/32 ebazpena - "Giza eskubideak, Sexu-orientazioa eta Genero- identitatea" (2014ko irailaren 26ean). Eskubideen urraketa moduan hartzen ditu sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa eta indarkeria, eta giza eskubideen urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak hartzearen garrantzia nabarmentzen du. 27/32 Ebazpenak estatuei eskatzen die pertsona guztien giza eskubideen babesa bermatzeko, haien orientazio sexuala eta genero-identitatea alde batera utzita, eta LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria prebenitzeko eta horri heltzeko neurri zehatzak hartzeko.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 32/2 ebazpena - "Sexu-orientazio eta genero-ideantitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa" (2016ko ekainaren 30ean).

- Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa bermatzeko maila internazionalan indarrean dauden tresnen aplikazioa ebaluatu, eta horien indargune eta hutsuneak identifikatu.
 - Herritarrengan sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kontzientzia zabaltzea eta indarkeria eta diskriminazioaren muin eta arrazoi nagusiak identifikatu.
 - Estatuekin eta kasuan kasuko beste interesdun batzueki, hitz egitea. Nazio Batuen organismoak, programak eta funtsak, giza eskubideak, giza eskubideen erakunde nazionalak, gizarte zibila eta erakunde akademikoak, eta haiekin kontsultak egitea; A/HRC/RES/32/2 eta GE.16-12176 3.
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik indarkeriarik eta diskriminaziorik ez jasotzeko, etstatuekin lankidetzen, babeserako neurriak diseinatu eta aplikatzea.
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren arrazoi anitz, elkarlotu eta intersektionalei aurre egitea.
 - Aholkularitza-zerbitzuak antolatzea, erraztea eta babestea. Laguntza tekniko eskaini eta gaitasunak sustatzea. Baita, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren aurrean jarduteko estatu ezberdinek dituzten neurriak babesteko kooperazio internazionala.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 41/18 ebazpena - “Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babeserako aditu independentearen mandatua” (2019ko uztailaren 19an). Aditu independente bat izendatuko da, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babesa aboratzeko. Aditu independentea arduratuko da LGBTI+ pertsonen giza eskubideen egoera mundu osoan monitorizatzeaz, indarkeria- eta diskriminazio-kasuak ikertzeaz, LGBTI+ pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronka onenei buruzko informazioa emateaz eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluari urteko txostenak aurkezteaz.

Europar Batasuneko arau esparrua

- Giza Eskubideen Europako Konbentzioa (1950).

- “Konbentzio honetan aitortutako eskubide eta askatasunen gozamena inolako bereizketarik gabe ziurtatu behar da, sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste jatorri nazional edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste nolakotasunak edozein izanik ere. ”
- Europako Kontseiluaren 756. Ebazpena eta 934. Gomendioa, “pertsona homosexualen dagokienean”(1981).
 - 756. ebazpena: Estatu kideei eskatzen die sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioari aurre egiteko neurriak har ditzatela eta homosexualen tratu-berdintasuna berma dezatela enpleguaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren arloetan, besteak beste.
 - 934 Gomendioa: 756. ebazpena osatzen du, orientazio zehatzagoa ematen baitu homosexualenganako diskriminazioari heltzeko neurriei dagokienean. Berdintasuna sustatzeko eta pertsona homosexualen eskubideak babesteko ezar daitezkeen politikei eta legegintza-neurriei buruzko gomendio espezifikoak jasotzen ditu estatu kideentzat.
- Europako Parlamentuaren 1984ko martxoaren 13ko Ebazpena, lantokiko sexu diskriminazioei dagokiena. Berariaz lantzen ditu lantokietako sexu-orientazioagatik jasotzen diren diskriminazioak.
- Europako Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko Ebazpena, transexualen aurkako diskriminazioari dagokiona. Pertsona transexualek dituzten kezka eta erronka espezifikoiei heltzea du helburu, eta diskriminazioaren aurrean jarduteko eta oinarritzko giza eskubideak bermatzera bultzaten ditu.
- Europako Parlamentuak 1994ko otsailaren 8an emandako ebazpena, Europako Erkidegoko homosexualen eta lesbianen eskubideen berdintasunerako.
- Amsterdango Ituna 1997ko urriaren 2an. 13.1. artikulua “Itun honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe, eta Erkidegoari ematen dizkion eskumenen muga barruan, Kontseiluak, 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, neurri egokiak hartuko ditu sexuagatik, arrazagatik edo jatorri etnikoagatik, erlijio edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik diren bereizkeriaren aurka borrokatzeko. ”

- Europako Parlamentuaren ebazpena (2006ko urtarrilaren 18an). Lesbianen eta gayen eskubideen berdintasunari eta diskriminazioaren eta homofobiaren aurkako borrokari dagozkionak. Estatu kide guztiei eskatzen zaie xedapen juridiko eta administratibo guztietan tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzen ziurtatu dezaten, xedapen pertsonen sexu-orientazioa edozein izanik ere.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, Nazio Batuetako giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokiona (2011ko irailaren 28an).
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, Europan homofobiaren aurkako borrokari dagokiona (2012ko maiatzaren 24ean). Gako nagusi batzuk ondorengo hauek izan ziren.
 - LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria gaitzestea.
 - Estatu kideei dei egiten zaie neurri zehatzak har ditzaten LGBTI pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko bizitzako esparru guztietan, baita enpleguan, hezkuntzan, arreta medikoan eta etxebizitzan ere.
 - Hezkuntzak LGBTI pertsonetako errespetua eta tolerantzia sustatzeko duen funtsezko zeregina ezagutzea.
 - Estatu kideei eskatzea neurriak har ditzatela familiaren eremuko eta LGBTI pertsonentzako osasun-zerbitzuetarako sarbideari dagokion diskriminazioari aurre egiteko
 - LGBTI pertsonentzat adierazpen-askatasunaren eta bilera baketsuen garrantzia aitortzea, bai eta EBtik kanpoko herrialdeetan jazartuak diren LGBTI pertsonak babesteko beharra ere.
- Lunacek informea (2014). Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik jasotzen den diskriminazioa borrokatzeko eta homofobiaren kontra jarduteko EBren ibilbide-orriari buruzko txostena.
- Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren berrikuspena (2016). Berretsi egiten da “ "Debekatuta dago bereizkeria oro, eta, bereziki, sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoengatik, hizkuntza, erlijio edo sinesmenengatik, iritzi politikoengatik edo beste edozeinengatik, gutxiengo nazional bateko

kide izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik. "

- Europako Parlamentuaren ebazpena, EB LGBTIQ pertsonentzako askatasun-eremu deklaratzeari dagokiona (2021eko martxoaren 11an). EB LGBTIQ pertsonentzako askatasun-eremu gisa deklaratzeari.

Espainiar estatuko arau esparrua

Kasu honetan, estatu mailan aurretik bestelako lege batzuk diseinatu badira ere, transen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailak 28ko 4/2023 legea hartuko dugu kontuan nagusiki, LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeko esanguratsuen delako. Garrantzia berezia eman diogu hiru alderdietan:

- Eragin esparru eta haien funtzioak modu oso zehatzean argitzen ditu legeak. Horretarako, bereziki begiratuko ditugu I. Kapituluen 4, 5, 6 eta 7. artikulak. Bertan, botere publikoen betebeharrak eta ekimenak zehazten dira, hala nola, "babes, errekonozimendu, sentsibilizazio eta zabalpen" betebeharrak. Hala ere, bereziki azpimarragarria da, diagnostiko eta ekintza plan honi dagokionez, 7. Artikuluak zehazten duen "Ikerketa eta estatistikarako" betebeharra.

TÍTULO I

Actuación de los poderes públicos

CAPÍTULO I

Criterios y líneas generales de actuación de los poderes públicos y órgano de participación ciudadana

Artículo 4. *Deber de protección.*

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, desarrollarán todas las medidas necesarias para reconocer, garantizar, proteger y promover la igualdad de trato y no discriminación por razón de orientación e identidad sexual, expresión de género o características sexuales de las personas LGTBI y sus familias.

Artículo 5. *Reconocimiento y apoyo institucional.*

1. Los poderes públicos adoptarán las medidas necesarias para poner en valor la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales

y la diversidad familiar, contribuyendo a la visibilidad, la igualdad, la no discriminación y la participación, en todos los ámbitos de la vida, de las personas LGTBI.

2. Los poderes públicos fomentarán el reconocimiento institucional y la participación en los actos conmemorativos de la lucha por la igualdad real y efectiva de las personas LGTBI.

Artículo 6. *Divulgación y sensibilización.*

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, promoverán campañas de sensibilización, divulgación y fomento del respeto a la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y a la diversidad familiar, dirigidas a toda la sociedad, y en especial en los ámbitos donde la discriminación afecte a sectores de población más vulnerables.

Artículo 7. *Estadísticas y estudios.*

1. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, impulsarán la realización de estudios y encuestas sobre la situación de las personas LGTBI que permitan profundizar en la naturaleza y el alcance de las principales situaciones de discriminación que les afectan y registrar su evolución a lo largo del tiempo.

2. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, incluirán en la elaboración de sus estudios, memorias o estadísticas, cuando se refieran o afecten a aspectos relacionados con la discriminación de las personas LGTBI, los indicadores y procedimientos que permitan conocer las causas, extensión, evolución, naturaleza y efectos de dicha discriminación. Estos datos se desglosarán en función de las causas discriminatorias previstas en esta ley siempre que sea posible.

- Bestetik, 2023ko Legea oinarri gisa hartzeko beste arrazoi bat, legea beraren gaurkotasuna da, batik bat, trans despatologizazio eta terminologiari dagokionez.

“En lo relativo a las personas transexuales (en adelante, personas trans), la Clasificación Internacional de Enfermedades de la Organización Mundial de la Salud, en su undécima revisión (CIE-11), de 2018, eliminó la transexualidad del capítulo sobre trastornos mentales y del comportamiento, trasladándola al de «condiciones relativas a la salud sexual», lo que supone el aval a la despatologización de las personas trans”.

- Eta azkenik, 3. artikuluan oinarritzko kontzeptuak birdefinitzeko egindako lana ere kontuan izango dugu, zeinak gida gisa balioko digun terminologia eta eragite arloak definitzeko.

g) Intersexualidad: La condición de aquellas personas nacidas con unas características biológicas, anatómicas o fisiológicas, una anatomía sexual, unos órganos reproductivos o un patrón cromosómico que no se corresponden con las nociones socialmente establecidas de los cuerpos masculinos o femeninos.

h) Orientación sexual: Atracción física, sexual o afectiva hacia una persona. La orientación sexual puede ser heterosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas de distinto sexo; homosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas del mismo sexo; o bisexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva hacia personas de diferentes sexos, no necesariamente al mismo tiempo, de la misma manera, en el mismo grado ni con la misma intensidad. Las personas homosexuales pueden ser gais, si son hombres, o lesbianas, si son mujeres.

i) Identidad sexual: Vivencia interna e individual del sexo tal y como cada persona la siente y autodefine, pudiendo o no corresponder con el sexo asignado al nacer. j) Expresión de género: Manifestación que cada persona hace de su identidad sexual.

k) Persona trans: Persona cuya identidad sexual no se corresponde con el sexo asignado al nacer.

l) Familia LGTBI: Aquella en la que uno o más de sus integrantes son personas LGTBI, englobándose dentro de ellas las familias homoparentales, es decir, las compuestas por personas lesbianas, gais o bisexuales con descendientes menores de edad que se encuentran de forma estable bajo guardia, tutela o patria potestad, o con descendientes mayores de edad con discapacidad a cargo.

m) LGTBIfobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas LGTBI por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

n) Homofobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas homosexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

ñ) Bifobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas bisexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

o) Transfobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas trans por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

p) Inducción, orden o instrucción de discriminar: Es discriminatoria toda inducción, orden o instrucción de discriminar por cualquiera de las causas establecidas en esta ley. La inducción ha de ser concreta, directa y eficaz para hacer surgir en otra persona una actuación discriminatoria.

Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua

- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Horrela definitzen da legearen helburua:

Transexualei, transexual izateagatik edo izate horrek sortzen dien egoera pertsonal zein sozialagatik, legedian oraindik ere eragiten zaizkien bereizketa mota guztiak gainditzera bidean laguntzea eta aurreratzea, eta, horrekin batera, Konstituzioan aipatzen diren zenbait printzipioren arau-garapena hobetzea, alegia, diskriminaziorik eza, nortasunaren garapen askea eta pertsonaren, familiaren eta taldearen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa jasotzen dituzten printzipioen arau-garapena hobetzea, horretarako aplikatzekoa den araudia gizarteak bizi duen garai historiakoari egokituz

- 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.

Dekretuak azalpen atal bat, sei artikulua, azken xedapen bat eta bi eranskin ditu. Lehenengo artikuluan adierazten da, hain zuzen ere, dekretuaren xedea dela transexualek, Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen kasuan, jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte, eduki dezaketen dokumentazio administratiboa arautzea.

Bigarren artikuluan, dekretuak bere aplikazio-eremua finkatzen du eta legean araututako dokumentazio administratiboa zer pertsonak eskuratu ahal izango duen zehazten du.

Bestetik, hirugarren artikuluan, dokumentazio administratiboa jaulkitzeko organo-eskuduna zein den zehazten da. Laugarren artikuluan, jaulkitzeko prozedura azaltzen da, eta azkenik, bosgarren artikuluan, aurretik aipatutako prozedura ebaztearekin lotutako alderdiak arautzen dira.

Seigarren artikuluan, dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa jaulkitzearen ondorio orokorrak eta ondorio partikularrak finkatzen dira, zehazki, osasun eta hezkuntza arlokoak.

Azkenik, bi eranskinetan, dokumentazio administratiboa eskatzeko eredua eta jaulki beharreko txartelaren eredua finkatzen dira, hurrenez hurren.

- 9/2019 LEGEA, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa.

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeko 3. artikulua aldatzea, horrela bilatuz transexualitatea despatologizatzea.

Transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona bati jaiotzean jarri zitzaion sexua ez datorren bat sentitzen duen eta berea dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik.

Ondorioz, lege honen ondorioetarako, pertsona transexualaren kontsiderazioa arautuko du identitate sexualaren autodeterminazio librerako eskubideak. Eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, beti arauak jarritz eta aplikatuz ariketa libre eta oso horren alde. Pertsona transexualek baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe.”

- 4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, eta horrekiko aldaketa esanguratsuenak ondorengoak dira, besteak beste, trans izendapena onartuko da; Ez-bitar terminologia txertatu da; Mutilazio genitala ekidingo da; Judizializazio prozesuen aurretik gizarte zerbitzuen eskuhartzea lehenetsiko da; Trans memoria eguna arautuko da.

Pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, helburua izanik, batetik, pertsona transek beren izateagatik edo egoera pertsonal zein sozialagatik jasaten dituzten diskriminazio guztiak gainditzeko bidean lagundu eta aurrera egitea, eta, bestetik, kolektibo horren berezitasunei erantzutea.

Lege honek, guztira, zortzi kapitulu, berrogeita bi artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluaren arauaren xedea, aplikazio-eremua eta xede dituen kolektiboen definizioa biltzen dira. Hala, aurreko arauak ez bezala, berariaz jasotzen dira, pertsona transexualak ez ezik, pertsona transgeneroak eta intersexualak ere.

II. kapituluaren trans arloko politika publiko baterako oinarriak ezartzen dira, eta honako hauek arautzen dira: euskal administrazio publikoek pertsona transekiko izan beharreko tratamendua, eta Euskal Administrazioako langileei prestakuntza emateko betebeharra; trans mugimenduaren memoria aintzatestea eta balioestea; transfobiari aurre egiteko garatu eta aplikatu beharreko neurriak, eta pertsona transen administrazio-agiriei dagokienez hartu beharreko neurriak. Aipatzekoa da, duen garrantziagatik, kapitulu honetan orobat eskatzen zaiela euskal administrazio publikoei berma diezaietela pertsona adingabe transexualei beren garapen integrala eta nortasunaren garapen askea bultzatzeko beharrezkoak diren babesa eta arreta.

III. kapituluaren idazketak garapen luzea egiten du bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arretari dagokionez, bai pertsona transek jasotzeko eskubidea duten osasun-prestazioei dagokionez; Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua erregelamendu-mailatik lege-mailara pasatzen da; oinarriak ezartzen ditu pertsona transen arretarako osasun-gidaren lege-garapena egiteko; osasun-prestazioen aurreikuspen zabala jasotzen du eta pertsona transen eskubideak kodetzen ditu. Aldi berean, artikulua berri batean jasotzen du berariaz debekatzen direla genitalen aldaketa eta mutilazioa, bai eta pertsona intersexualengan kaltegarriak diren beste prozedura mediko batzuk ere.

IV. kapituluaren, bestalde, familia-eremuko neurriak aipatzen dira, eta familia-aniztasunaren babesa, sexu-identitateagatiko diskriminaziorik eza eta eremu horretan indarkeriaren aurrean laguntzeko eta babesteko neurriak sustatzen dira.

V. kapituluaren, lan-arloko diskriminazioaren aurkako neurrietan sakontzen da; besteak beste, ekintza positiboko neurriak hartzea eta ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatzea enpleguaren arloan, eta trans errealitateak sartzea enpresen gizarte-erantzukizunaren eremuan. Orobat aurreikusten da lan-arloko diskriminazioaren aurkako plan bat garatzea erregelamendu bidez, eta laneko jazarpenaren aurkako mekanismoak ezartzea. Bestalde,

VI. kapituluaren, hezkuntza-sisteman trans errealitatea artatzeko neurriak arautzen dira, barne hartuta eskola-eremuan trans errealitatea artatzeko protokolo bat, trans errealitateak hezkuntza-planetan eta -edukietan sartzea, eta prestakuntza- eta dibulgazio-

ekintzak garatzea. 44. zk. 2024ko otsailaren 29a, osteguna EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2024/1068 (21/3)

VII. kapituluaren kulturaren, aisialdiaren eta kirolaren arloko neurriak arautzen dira, kultura inklusiboa sustatzearen ikuspegitik eta kirolean, aisialdian eta denbora librean ekitatez eta sexu-diskriminaziorik gabe parte hartzearen ikuspegitik.

VIII. kapitulua segurtasunaren, justiziaren eta larrialdien arloko neurriei buruzkoa da. Besteak beste, alde batetik ezartzen da ezen, Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, zaindu egin behar duela gorroto-delituaren biktima diren pertsona transei arreta emateko beharrezko neurriak hartzen direla Ertzaintzan eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoetan, eta, bestetik, beharrezko neurriak hartu behar direla pertsona transen tratua eta egonaldi egokiak bermatzeko poliziaren egoitzetan, epaitegietan eta askatasunaz gabetzeko beste eremu batzuetan.

Azkenik, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen sartu dira. Xedapen gehigarriei dagokienez, lehenengo bietan ezartzen da, batetik, zer epe ematen zaion Gobernuari osasun-gida eratu behar duen batzordea abian jartzeko, eta, bestetik, noiz jarriko diren indarrean trans arloan lehen mailako arreta emateko zerbitzuak eta Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua. Azken xedapen gehigarria arau honen ebaluazioari eta berrikuspenari buruzkoa da, eta eskumen hori gizarte-politiken arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari dagokiola ezartzen da. Azkenik, azken xedapenetan gaitasuna ematen zaio Jaurlaritzari legea garatzeko, eta ezartzen da araua indarrean jarriko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

4. JASOTZEKO ERREMINTAK

Metodologia

Diagnostikoa egiteko erabili den metodoa kualitatiboa izan da. Sakoneko informaziora iritsi eta parte-hatzaileentzat garrantzitsua eta adierazgarria den kontakizuna ezagutzea da, metodologia kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoi nagusia. Ikerketa teknikari dagokionez, sakoneko elkarrizketak erabili eta talde zehatzekin (herriko eragileak, udal gobernu taldeak, udaletxeko langileak...) lan-saioak erabili ditugu.

Elkarrizketak aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituta egin dira, nahiz eta egoerak horrela eskatuta, irekitasuna eman eta galderak aldatu edo moldatzeko aukera ere izan dugun. Teknika hau erabilita parte-hartzaileekin hartu-eman zuzena sustatu da.

Lan-saioak ere aurrez prestatutako dinamika batean oinarrituta egin dira. Dinamiken helburua bakoitzak bere lekutik (udaleko teknikariak, herriko eragileak, politikariak...) ekarpen ahalik eta emankorrenak egitea izan da, baita LGTBI+ kolektiboko pertsonen lekuan jarritz hausnartzea ere. Landu direnen artean, herriko LGTBI+ pertsonen bizitzak hobetzeari begira sustatzeko neurriak eta ekarpenak izan dira.

4.1. PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK

Beheko taulan diagnosian parte-hartu duten pertsonen profilak zehaztu dira.

Profilak definitzerako orduan hainbat aldagai hartu dira kontuan, adibidez; adina, norbanakoaren auto-definizioa eta bizilekua.

4.1.1. Norbanakoak

Herriko LGTBI+ kolektiboaren parte diren 19 norbanako elkarrizketatu ditugu. Parte-hartzaile bakoitza eta bere testigantzak gakoak dira Azpeitiaren erradiografia ahalik eta errealea izateko.

4.1.2. Eragileak

Herriko eragileekin lan-saio eta elkarrizketak egin dira. 7 eragile ezberdinekin bildu gara, bakoitzak bere arlotik edo begiradatik kontatzeko duena jasotzeko asmoz.

4.1.3. Udala

Udalari dagokionez 5 talde edo parte-hartzaile elkarriketatu ditugu. Udalarekin duten lotura leku ezberdinetatik izatea bilatu dugu, langile edo teknikari moduan batzuk, eta udaleko politikari moduan, besteak.

NOMENKLATURA	ADINA	AUTO-DEFINIZIOA	BIZILEKUA HERRIAN/KANPOAN
N001	Ertaina	Bollera (lehen lesbiana)	Herrian
N002	Heldua	Lesbiana	Herrian
N003	Gaztea	Bollera	Kanpoan
N004	Gaztea	(ez du zehazten, baina marika)	Kanpoan
N005	Ertaina	Bollera	Herrian
N006	Gaztea	Homosexuala	Herrian
N007	Ertaina	Marika	Kanpoan
N008	Ertaina	Bollera	Herrian
N009	Gaztea	Gizon transexuala	Kanpoan
N010	Ertaina	Bollera	Herrian
N011	Adin txikikoa	Mutil Trans-a	Herrian
N012	Ertaina	Emakumea	Herrian
N013	Ertaina	Homosexuala	Kanpoan
N014	Ertaina	Ez da etiketatzen (B)	Herrian
N015	Ertaina	Homosexuala	Herrian
N016	Gaztea	Asexual arromantikoa, ez bitarra	Kanpoan
N017	Gaztea	Ez daki bi edo bollera moduan nola kokatu.	Herrian
N018	Ertaina	Bisexuala	Herrian
N019	Ertaina	Homosexuala	Kanpoan
E001	Heldua	Herri eragilea	
E002	Gazteak eta adin ertainekoak	Herri eragilea	

E003	Ertaina	Herri eragilea	
E004	Adin ertainekoak eta helduak	Herri eragilea	
E005	Ertaina	Herri eragilea	
E006	Ertaina	Herri eragilea	
E007	Ertaina	Herri eragilea	
E008	Gazteak eta adin ertainekoak	Herri eragilea	
U001	Ertaina	Udala	
U002	Ertaina	Udala	
U003	Ertaina	Udala	
U004	Ertaina	Udala	
U005	Ertaina	Udala	

5. OIHU BAT ISILTASUNEAN. ZAURI ETA ARDURA KOLEKTIBOAK.

Diagnostikoa

Esku artean duzuna ez ohiko diagnostiko baten gorputza. Ezta datu kuantitatibo eta kualitatiboz betetako txosten bat ere. Esku artean duzuna, hilabete hauetan Azpeitiako herritarrengana, zehazki LGTBI+ komunitateko jendearengana inguratu ostean, norbanako horiek emandako hitzek sortu duten narrazio kolektibo baten emaitza da.

Normalean, Eiheratik, diagnostikoak sistematizatu eta antolatzerako momentuan, arloka eta ondoren hartuko diren neurrien egiturapean antolatzen dugu jasotako informazioa. Azpeitiako kasuan, ordea, 32 pertsona elkarrizketatu ostean, herri bati begiratzeko beste modu eta prisma baten aurrean ginela sentitu genuen. Ikusi eta entzun genuen, aurrean eseri zitzaizkigun norbanako askorentzako elkarrizketa horiek izan zuten garrantzia; askorentzat lehen aldiz kontatzearen bizipena zena, beste batzuek lehen aldiz galdetuak izatearen eskertza bizi zuten.

Ez dugu ukatuko, gudan ere inpaktu bereziko prozesua izan dela. Sentitu dugu elkarrizketatutako ahots bakoitzak, askotan beste elkarrizketatutakoak ezagutu edo haiekin inoiz hitz egin gabe ere, ezagutza konpartitu eta kolektibo handia zutela, bizipen eta pertzeptzio asko konpartitzen zituztela, Azpeitiako herriaz eta bertan LGTBI+ pertsona gisa garatu ahal izateko bidez asko zekitela.

Horregatik, eta guk bertan parte hartutako pertsona bakoitzaren bizipenak balioan jartzeko asmoz, esku artean duzuna ez da, esan bezala, ohiko diagnostiko baten gorputza duen txosten bat, baizik eta, Azpeitiako herriari beste leku batetik begiratzeko, ikusteko, errekonozitzeko eta bertan bizitakoak erreparatzeko narrazio bat baizik. Ez da beti samurra izango, ez da beti irakurtzeko erraza izango, baina berebiziko garrantzia du herri eraikuntza kolektibo bat nahi badugu.

Hiru atal nagusitan banatu dugu ikerketaren gorputza.

Batetik, oso garrantzitsua iruditu zaigu, eta horregatik lehen zati luzea osatzen duen atala dugu, alegia, LGTBI+ pertsonen Azpeitiaz duten irudi, bizipen eta irakurketak biltzen dituen. Bigarrenik, bertan bizirauteko izan dituzten babes eta erreferenteen atala. Eta azkenik, gerora, neurri sorta batekin osatuko den, bizi nahi dugun Azpeitia eraikitze gako eta erronkak.

Bidaia hau, herrian isildutako eta izkutatutako errealitate batetik begiratzeko gonbidapen bat da. Aukera on hau baliatu eta ikasketarako baliatzea espero dugu; guri gertatu zaigun moduan.

5.1 Non bizi (izan) gara?

Azpeitiako herriaren erradiografia bat

*"Sozialki indarkeriarik hautematen ez baduzu,
ziurrenik indarkeria erabiltzen duzulako da"*

Paul B. Preciado

TRADIZIO BATI JARRAIKA

Herri bat nolakoa den edo ez den definitzerako orduan, haren idiosinkrasiaz aritzen gara, hain zuzen, herri horretako kolektibitateak betetzen dituen nolakotasun komun eta konpartituez.

Tradizioa zer den zehazterako orduan, definizio asko irakur ditzakegu, baina badira errepikatzen diren funts batzuk. Ohitura eta errito multzoa direla, kultura baten funtsezko osagaia dela, eta giza taldeak euren nortasuna eraiki eta beste giza taldeetatik bereizteko erabiltzen direla, esaterako. Bada, beste nolakotasun garrantzitsu bat, gure ikerketa honetan pisu berezia izango duena, esaterako, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den zerbait dela eta, denboraren poderioan finkatzen den kultur ondarea eta portaera-ereduen multzoa dela. Azken honek, portaera-ereduek, garrantzia berezia izango dute atal honetan.

Izan ere, idatzi gabeko arauetaz osatutako ondarea ere bada eta, barne/kanpo logikak, edo gu/besteak identitateak finkatzeko balio du. Zer gertatzen da, ordea, komunitateko kide batzuek portaera horiek betetzen ez badituzte?

LGBTI+ komunitateko kideek, gehienetan, oso ondo ezagutzen dituzte norbere herriak eta batez ere, norbere herriko idatzi gabeko arau, dinamika, antolakuntza, hierarkia eta ohiturak. Hain zuzen ere, historikoki, horietatik kanporatuak izan direlako, edo gutxienez, kanpo sentituak; eta txarrean, norbere izatearen aurka, bertan egokitzea behartuak. Horregatik da interesgarria herri baten irudi eta erradiografia egiterako orduan, eta tradizioak finkatzerako orduan, bazterretara bideratuak izan direnen begirada eta ahotsak jasotzea, arauetan eroso daudenentzat, herria bera beste era batera ikusteko aukera paregabea delako.

Hala, ikerketa honetan, elkarriketatuei eskatu genien lehen hausnarketa, Azpeitia definitzekoa izan zen eta, ondorengo puntuak izan dira gehien aipatu eta azpimarratu direnak.

Tradizioa

Azpeitiari buruz galdetuta, elkarriketatutako ia norbanako guztiek esandako lehen hitza da tradizioarena. Ulertu daiteke, Azpeitian garrantzia handiko elementu kohesionatzailea dela edota, behintzat identitatea eraikitze gakoetako bat. Elkarriketatuek ere hala bizi dute, eta, sarri, “kontserbadorea” kalifikazioa gehituko diote atzetik.

“Azpeitin tradiziye hezurretan oso pegauta daukeun gauza da” N005

Tradizioaren kontzeptua gainera, ez dator ondareari edo herritar guztiak barne hartzen dituen kontzeptuari tiraka soilik, baizik eta jarraikortasun bati erantzuten dion arau sozial bezala.

“Azpeiti bada herri bat gonbidatzen zaituna lehenoko joerakin jarraitzera, zerbait berri edo diferente ekartzen badezu, edo hueco iten badezu, sentitzen dezu atea in bertzala, gero itzultzeko akaso” E005

Beste era batera esanda, edo zehatzago, tradizio edo erritual horiek behar bezala betetzeak definitzen du azpeitiarraren profila, nolakotasunak eta benetakotasunak. Eta definizio horiek zehazki dira, bazterrak ere definitzen dituztenak, alegia, uste konpartitu horiek betetzen ez dituztenek osatzen duten “beste” leku hori.

“Esango nuke neretzat Azpeiti oso herri tradizionala eta kontserbadoria izan dala, ez? Eta Azpeitiar hola petuek izango zien pertsona hola, txuriyek, klase jakin batekuek, heterosexualak, eta nik ustet kategorია hoiek betetzen ez zituzten jendiek ba bai bazterrien edo baztertu in diteula. Izan Extremaduratik etorri dien langilek honea, izan heteroarautik kanpo kokantzean jendia. Nik uste jende hori ba historikoki baztertuta eon dala eta herri honen oinarriyan heteroaraua oso presente eon dan gauza bat izen dala ta hori ikusi daitekeela herriko dinamika, festa, ritual eta tradiziyo diferentetan”. N006

Azken batean, komunitate guztiek duten parte izan edo ez izatearen garrantzia azpimarratzen da, nolabait, tradizio eta erritual horiek behar bezala jarraitzeak edo ez jarraitzeak “benetako” azpeitiar izan edo ez izan erabaki dezakeena.

“Herri klasikoa da, badaukalako mitologia oso potente bat eta erritualekin lotura handia, parte iten zeana edo ez. Parte ez bazea, badago beti norbait datorrena remarkatzera orduan ez zerala nahikoa azpeitiarra, herriak bultzatzen zaitu beti izatera erritualan parte”

E005

Tradizioaren definizioak ordea, forma desberdinak har ditzake eta, elkarrizketatuek argi dute tradizio horrek atzean, nolabaiteko rol eta estereotipoen eraikuntza bat dakarrela.

“Herri itxi bat, tradizionalki edo, zea batzukin, esango genuke, ideia batzukin, eta txiki txikitatik ikusteala ba estereotipuk eta oso markauta daudela” N008

Gainera, tradizioa beste herriko nolakotasun, gorputz jakin eta praktikekin lotu dute beste hainbatek, gerora, ikerketan zehar, presentzia handia edukiko duten elementu batzuekin.

“Azpeiti? Tradizioa, gizentasuna eta kirola” N010

Badago beste elementu garrantzitsu bat, Euskal Herrian oso markatuta dagoena, eta ikerketa honetan leku berezia hartu duena: Kuadrilla. Dinamika hau, modu askotan definitu daitekeen arren, kasu honetan, askotan aipatuko den espazio eta praktika bat izan da, nolabait, aurreko elementuak haintzat hartzen dituen: pertenezia, idatzi gabeko arauak, sozialki esleitzen zaizun leku bat eta, genero banaketa eta rol desberdinen arabera antolatua.

“Kuadrillismoa tradizio handia da eta asko mugatzen du. Oso zaila da sartzea baina beste batzuekin iblitzea ere zigortzen da” E002

“Nik esango nuke, ba igual estereotipuk oso oso markauta egotia igual ez? Esan naet, herri mailan, gero kuadrillan sexu bereizketa hoiek ere ebai... poteuk eta rebai...” N008

“Hemengo kuadrilaren aktitueda oso normatiboa eta hirientea da.” N012

“Familiaik ez eukitzea erabakitzen badu norbaitek, mutilan kasuan solterun kuadrillan juntauko da, baia emakumie bada, desgaertu” E002

Aurrerago ere, kuadrillek izan dituzten funtzio desberdinak garatuko dira, baina garrantzitsua da, herria eta bertako dinamika ulertzerako garaian duen pisua azpimarratzea.

Isolamendua

Bada beste elementu bat, Azpeitia definitzerako momentuan asko errepikatu dena, hain zuzen, elkarrizketatuei Azpeitia testuinguari erreparatuta kokatzeko eskatu zaienean. Argi irudikatzen dute herria “mundutik” edo sarri Euskal Herritik aparte dagoen herri bat bezala. Isolamendu sentazio errepikakor bat ageri da. Honek, herriko dinamiketan, berrikuntzetan, ideietan eta aldaketetan eragina duela uste dute sarri.

“Azpeitiak eta bailarak badauka horrelako rotonda sentazio bat, inguruan dena pasatzen da eta hemen dago horrelako reserba bat, non bereziki hona ez bazatoz ez dira gauzak sartzen ez ateratzen ere, baina horrelako gauzetarako txarrerako da, permeabilitate hori

galdu egiten da, orduan, interkanbio hori ez da sortzen, eta horrek ekartzen du beste herri batzuekin atzerago egotea ikuspegi aldetik” N013

Honek eragin zuzena du barne/kanpo dinamika eta errealitateak bizitzerako orduan. Hain zuzen, urruntasun sentrazio bat.

“Herri klasiko hontan oindiken gaude oso urruti gauza askotatiken.” E007

Eta bestelako ideien eta praktiken irisgarritasuna oso zaila dela hautematen dute, besteak beste, lehenago aipatu den perfil konkretu batek herrian duen indarra dela eta.

“Euskal Herrin presentego dago baina Azpeitin ez da berdin iritsi. Ez da hori pasa oso gizon herrie dalako” N017

Hala ere, ikusten diote alde on bat munduarekiko urruntasun horri, hain zuzen ere, euskarari eta haren erabilerari lotua azaltzen dena [aurrerago ere, emango diogu leku berezia puntu honi, garrantzia eta pontentzialitate handikoa delako]. Baina, euskara eta arnasmune mantentzeak batzuetan, beste gai batzuekiko (kasu honetan, LGTBI+ errealitateekiko) itxitasuna ekarri duela argi dute.

“Garraio publiko oso eskasa duen herria da, mundutik nahiko urruti geratzen da, horregatik euskerie mantentzen da mantetzen dan bezala, baina gai batzuk igual nahiko berandu datoz” N010

“Inkomunikata egon da eta hori ona izan da arnasmune izan geraldako, baina itxitasun horrek gauza batzuk makalago joatea ekarri du” E002

NON GAUDE LGTBI+ PERTSONAK AZPEITIAN?

Herri baten nolakotasun eta idiosinkrasiaren elementu orokorrak aztertu ostean, horiek ikerketa honi dagokion gaiarekin duten lotura arakatzeko pausua eman genuen. Hain zuzen, Azpeitiako LGTBI+ errealitateei dagozkienak. Hainbat izan dira nagusitu diren alderdiak, batzuk bereziki azpimarragarriak.

Isiltasunak ikusezin egiten gaitu

Historikoki LGTBI+ kolektiboko pertsonen bizipenak aztertu ezker, isiltasuna, ezkutuan bizi beharra eta klandestinitatea oso presente dauden praktikak (ez beti borondatezko) izan dira. Kanpo errepresio gero eta handiagoa izan, isiltasuna ere proportzionala izan da.

Azpeitiako kasuan, elkarrizketatuen egun herrian LGTBI+ errealitateen inguruan galdetuta, dena delako genero, adin edo sexu aukera izanda ere, hitz horrekin erantzun dute: isiltasuna.

“Inoiz ezta in ezerre kalien, ez kalejira bat, ez festa, poteue... Isiltasun haundiye dao” N003

“isilik mantentze zana zan.” E001

Isiltasun horrek, zuzeneko ondorio bat izan du belaunaldiz belaunaldi, hain zuzen, errealitate horren existentzia ukatzearena eta, beraz, LGTBI+ pertsonen ikusezintasun eta armairu bat ekarri duena. Hainbat izan dira, alderdi hau azpimarratu dutenak eta espazio berezia eman nahi izan diogu errealitate honi.

“Ematen du emen ez dagola, ez dela pasatzen” N010

“Ez dago inor, ez da ikusten, emateu inor ezuala” N017

“Hemen etzan eze ikusten, eske Azpeiti Azpeiti da e? Apartekue. Gai guztiyetan, apartekue, punto y aparte. Xelebrie.” N002

“Espreski ez badezu esaten LGTBI+ zerala, ba orduan ez da izango” N013

“Egon egongo dia, baina inork ez du manifestatzen” N017

Isiltasun hori ez da ekintza pasibo bat gainera, LGTBI+ pertsonen modu kontzientean ezkutatzeko duten zerbaitek da, aurrekoei eta ingurukoei hala ikasita edo behintzat, irakaspen sozial bezala gorputza, zeinak nor garen aktiboki tapatzera garamatzen, sarri, ondorioei beldur.

“Azpeitin gauzak oso ixkutun emate zien ni gazti nitzenin, oin eztakit nola daon asuntue. Nik behintzet enun ezautzen inor ni baino zaharro queer komunitatien parte zanik.” N016

“Beti ixkutun eraman det, lagunak eta baztertzen bildurreatik” N018

Ez esate, ez ikuste, ezkutatzeko eta ez entzute horrek, errealitatea ezabatzen du eta zuzenean praktika eta bizipen publikoak desagertzera garamatza, ondorio gisa, armairuzazio handi bat ekarri.

“Hemen ere ez det ikusten jendearen eskutik helduta eta muxuka. Bilbon bai, baina hemen, badakizu ‘herri txiki, infernu haundi’”. N001

“Herrian joera dago armairua nahiko haundiye eta enpotraua izatera” E005

Baina horrek guztiak ez du egon badagoena guztiz ezabatzen baizik eta susmoaren planora eraman eta tabu bilakatzeko arriskua du, inguruan bai, baina inon ez dagoena.

“Bai esango genuke bai badola gai honen inguruko desertu edo mamu moduko bat Azpeitin”. N006

Eta ez hori bakarrik, LGTBI+ errealitatea ikusten ez bada, existitzen ez dela sinisten badugu, honek ezinezko egiten du hura bera lehentasun edo aldarri politiko bilakatzea ere.

“Herri hau beti izan da oso herri politizaue, oso politikan sartuta eon dana, ta jo, era berin, LGTBI mugimendu edo eskubidetan oso... hutsune haundi bat dao ez? Beste borroka danetan eon gea lenengo filan eta eztao marko bat gai hauek lantzeko”. N006

“Momentu batzutan komunitate politikoa ere gordina izan da, zen gai bat etzeona” N010

“Adibibidez, ezta eon LGTBI talde antolaurik, in dan dana mugimendu feministatik in dala, ta gaur egun iten dan bakarra hola, sensibilizaziua beida ta esango nuke Ernai dala (bai festatan edo, iteitula halako zea batzuk), baino erakunde sindikal, politiko, kultural nik ustet inork eztula gai honen inguruko lanketaik iten”. N006

Eta esparru politiko horietan gaia ez lantzeak identifikazio falta ere badakar, alegia gai eta aldarri desberdinak balira tratatu eta borroka bat eta beste batera joan ezin daitezkeenaren ulerkera bat.

“Azpeiti zulo beltz bat da. Beti esaten nun independenpentzia kamixeta gorridun bi mutil ea noiz ikusten ditugun liatzen” N010

Ikusgarritasunarekin amaitzeko, badago zentzu honetan aurrerapausoak eman direnaren sentrazioa ere, baina garrantzitsua da, elkarriketatuengan oraindik bizitako horrek guztiak sorrarazten duen mesfidantza eta errealitatearen ezagutza.

“Ilusio optiko bat egon daiteke gauza hauek ikusgarriagoak direlako, baina jeisten bagea badaude oaindik resistentzi batzuk” E005

“Azpeitin jendeai galdetuko bazenio, denek esango dute ados daudela, baina jendea ez da kontziente ze komentario, jarrerak, begirasunek dituzten, eta gero esango dizute ez dakatela arazorik, baina ez dialako kontziente” E002

“Ezagutaraztea inportantea da. Ikusten ez dena ezta existitzen. Hori bistakoa da.” U005

Denon herria?

Ikusezintasun eta isiltasun horrek beste ondorio zuzen batzuk ere baditu, aurrerago garatuko dugun indarkeria eta eraso LGTBI+fobikoei dagokionez, adibidez, nola jakin zein diren eraso horiek LGTBI+ errealitatea bera zein den ez dakigunean?

“Ni nagonetik ez da salaketaik edo erasoik atzeman. Ez dakigu ezkutuan dagon zifra hoi den edo... Ez dut uste inork horrelako parteik eman dunik Azpeitiko udaltzainetan. Ez dakigu den ezkutuko zifra hoi edo realitatea dan... gero egia da Azpeiti oso herri kontserbadorea dela, eta hoi realitatea da.” U005

Elkarriketatuek argi sentitzen dute, tradizio, uste, arau, isolamendu eta praktika desberdinek, maila desberdineko azpeitiarrak ere sortzen dituztela, eta hor, LGTBI+ komunitateko kide izateak leku konketu bat ezartzen diela usu.

“Bakizu ze pasatzean? Herri hontan batzuk beste batzuk baino botere gehio dakaela eta ordun, holako pertsona batek eraso LGTBIfobiko bat ingo bazun, ez zan kontuta hartuko”

N004

Argi dute, hortaz, herriaren nolakotasun asko ez direla ikusten, edo barne/kanpo begiraden artean disonantzia bat badagoela.

“Kanpotik Azpeitik ematen du perfektua dala eta ez dala ezer pasatzen, baina gero mierda ta kasu potente asko daude” E003

Eta, finean, ia denak bat datoz ondorengoan:

“Iruitzen zait kolektibo honentzat herri zaila dala bizitzeko.” U005

ESPAZIO PUBLIKOA ETA AISIA

“Kalea, gaua, geureak dira!”

Lelo feminista

Herri bat, ordea, ez da errito, ohitura, tradizio eta praktikei begiratuta soilik definitzen. Izan ere, herri batek, horiek guztiak funtzionatzen duten espazio fisikoak dituzte, hauek ere, arau, praktika eta ohiturez beteak. Espazio konpartitu horri, espazio publiko deitzen diogu eta, sarri, aisiaren bitartez ere bizi dugu.

Espazio publikoak uneoro negoziaketa batean dauden lekuak izan ohi dira, funtzio, garrantzia eta erabilera desberdinak biltzen baitituzte. LGTBI+ komunitatearentzat (eta beste hainbat bazterreko identitateentzat, izan emakume, migrante, aniztasun funtzionala duen pertsona...), espazio publikoa borrokatu beharreko esparru bezala ulertu izan da, alegia, berez norberarena bezala sentitu izan ez duena. Horregatik, garrantzitsua da, espazio horrekin dituzten bizipenak, erabilerak eta gatazkak identifikatzea.

Kalea

Hauxe da, espazio publiko entzunda pentsatzen dugun lehen espazioa. Baina kaleak ere ez dira guztiak berdinak eta ez ditugu modu berean zapaltzen. Ez da kasualitatea, lelo historiko feministak, kaleak eta gauak emakumeenak ere badirela aldarrikatzea, historikoki hala ez baita izan. Eta egun? Horrela izaten jarraitzen al du?

Bada elkarriketaturik, Azpeitiako kale eta bizitza soziala modu oso asimetrikoan ikusten duenik.

“25 urtetik aurrera neskak ez dira kalean ikusten aisialdia egiten edo poteoan, izatekotan, haien mutilekin eta bikote gehiago dauden kuadrillan.” E002

Espazio publikotik emakumeak desagertzea, edo sarbide jakin bat izatea (bikotekide gizonaren bidez) ez da kasualitatea. Historikoki, emakumeek aukera eta bizipen murriztuak izan dituzte espazio publiko edo kalearekiko eta, horrek, norbere bizipen propioetan ere eragina dauka. Zergatik sentitzen dute, kasu honetan LGTBI+ komunitateko kideek, kalearekiko beldur, lotsa, intseguritate edo mesfidantza? Edo beste era batera esanda, zergatik sentitzen dute oraindik kalea (eta gaua) ez direla haienak?

“Nei beti eman izen dit bildurre edo plazatik pasatziek o plazan bakarrik eotiek zazpiretatik aurrea ostirela, zapatu egun osue ta igande eguerditan... beti eman izen dit reparue.

Bakarrik hola plazan eonien...” N003

Norberak kalea bere espazio gisa ez sentitzeak harreman zuzena du aurreko atalean landutako ideia batekin, alegia, ikusezintasunarekin. Kaleak ez baditu zure komunitateak ikusgarri zapaldu, bizi, erabili eta ospatu, ezinbestean, isilpeko mezu bat jasotzen duzu, zeinak esaten dizun, kalea ez dela zure lekua, edo ez guztiz behintzat.

“Ez bada ezer eiten kalien... ikusgarritasun falta dao.” N003

Eta badira, adinean aurrera, atzera begira, kalearen erabilera hori, edo hobe esanda, ezin modu librean erabiltze hori argi ikusten dutenak.

“Nik ustet askoz hobeto biziko nula nere prozesua gaur egun. Gazte batzuk ikusteitut kaletik lasai lasai ta kiston inbidiye pasatzet.” N018

Jaiak

Kalearen erabilera herrikoia eta konpartitua pentsatu ezker, lehenengo burura etortzen zaizkigun bilkurak herriko jai, ospakizun edo erritoak izan ohi dira. Kasu honetan ere, Azpeitian parte-hartze handiko festak ospatzen dira, herri guztiarentzat oso garrantzitsuak direnak.

Jai eta festa horien artean, bada elkarrizketatuen artean behin eta berriz errepikatu den egun bat: Elegante eguna. Elkarrizketatuek argi dute heteroaraua indartzen duen egun eta dinamika bat dela, baina aldi berean, joko horri ere ikusten dizkiote transgresiorako aukerak.

“Elegante egune oso arkaikoa da. Egia da neska gehiago ateratzen direla oain mutilez jantzita baino...” E002

“Elegante egunek irikitzeixkizu ate batzuk aukeraketa iteko erropa hortan... bagaude batzuk aukeraketa politiko bat in deuna erropa horrekin.” N003

Askotan esan eta bizi dugu, belaunaldi berriek LGTBI+ gai eta errealitateen inguruan jarrera hobea daukatela. Kasu honetan ordea, hainbatek, atzerapauso sententzia izan dute.

“Generazio berrienetan hori berriz ere moztu da [neskak mutilen janztearena], ez da horrebeste ikusten” E002

Hainbat elkarrizketatu, gainera, bereziki kezkatuta ageri ziren zezenketen bueltan sortzen den giroagatik ez ezik, antolatutako taldeek duten izaeragatik. Ulertzen dute heteroaraua indartu ez ezik, LGTBI+ kolektiboaren kontra doan taldea dela.

“Azpeitin jaian bueltan mugitzen dana da pasada bat, elegante euneko zezenan irteera da brutala” N010

Tradizio maskulino eta matxistatzat daukate askok festa giro hori, eta gizontasuna testuinguru horretan nola eraikitzen den galdetuta, batek baina gehiagok deskribatu du eszena berbera.

“Elegante egunin erdi kalen zezena ateratzen danian” N017

Argi ikusten da gizontasunaren eraikuntza konkretu batean errito, festa eta ohitura horiek duten eragina. Honek, sarri, elkarrizketatuak lekuz kanpo sentitzera eraman ditu eta baita, hainbat galdera planteatzera ere, jakinik, zezenketa eta sokamuturra ukitu ezinak diren elementu herrikoiak direla.

“Sokamuturra zailie izetie eta marikoia izetie aukera bat da?” E005

“Bultzatzen dien festa ereduak, zezenak, adibidez, hori zer da? LGTBI+ sustatzie eta hori sustatzie?” N005

Eta azkenik, jaiek sortzen dutenaren inguruan, bada errepikatu den sentsazio konpartitu bat, alegia, elegante eguna edo zezenketa dagoen egunaz aparte, jaiek bai sorrarazten dutela askatasun sentsazio bat, giro on bat. Zer eta, hasierako isolamenduaren ideari jarraikiz, berau hautsi eta kanpoko jendea etortzeak ematen duen irekiera sentsazioagatik.

“Jaietan, jentie kanpotik ta etortzeanez, ba girua, anitzaua da ez? Ez da horren zapatu bateko giro bat bezela, da anitzo, jende gehio dao... Klaro, ta gero segun, zezenketa badao beste giro bat dao...” N008

Eta, paradoxikoki, kanpoko jendearen presentzia horrek, sortzen ditu LGTBI+ jendearentzako espazio seguruenak.

“Espazio seguruna okurritzen zat San Inaziotan 30en txosnagunien, erdia kanpoko jendia dalako” E002

Horrek guztiak eta baita, barne mailan ematen diren lanketek, batzuek festak gero eta bizigarriago gozatzea ere ekartzen duela aipatu dute batzuek.

*“Bai in izan da erason aurkako protokolu ta hola, baino lanketa zehatzik ez nuke esango.
Baino nik esango nuke gaur gaurkoz nahiko festa bizigarriyek diela eta bai eon dala
nolabaiteko aldaketa bat” N006*

Tabernak eta gaua

Espazio seguruak kanpoko jendearen presentziak bermatzen dituela entzun diegu bati baina gehiagori, baina herrian, bestela ere, halakorik ba ote den galdetuta, teorian bai, baina mesfidati bizi dituzten espazioak aipatzen dira. Batez ere, ligatzerako orduan, argi ikusten dute gizon heterosexualen erantzuna ez dela ona izango, edota behintzat, ez dela ondo hartua izango.

“Gizon [gay] bat herriko beste edozein gizonekin ligatzen hasten bada, agian agresibo jarriko dira, bere gizontasune zalantzan jartzen ai zeralako. Bestela ez dute ezer ingo, baina obserbaute sentitu, bai” E002

Izan ere, gizontasunaren eraikuntza “marikoi” kontzeptutik ahalik eta urrunen eraikitzearen kontzeptua oso argi dute elkarrizketatu guztiek eta ikerketa osoan oso presente dagoen zerbait bat da.

“Asko entzuten da marikoi hitzek ze joku perberso eragiten duen gizonen artean, oso rigidoa da gizontasuna” E005

Beraz, oraindik, LGTBI+ komunitateko kide batzuk nola edo hala heteroaraua apurtzeko keinu edo ekintza bat egin ezkerro, gutxienez, harridura nagusituko litzatekeela.

“Espazio segurua, izatekotan, X [taberna] izengo zan, baina bertan ere danak flipatzen egongo giñan” E002

Hala adierazten dute batek baina gehiagok, oraindik harridura eragiten duela halako zerbaitek. Besteak beste, iazko egoera bati buruz kontatutakoan ikus dezakegun bezala.

“Kontzertun giro oso goxu zeon ta... argazkiyek ateatzen nebilen alde batea ta bestea ta bapatin bi mutil alkarri helduta ta bata bestiei burun muxu emantziyon. Ta atentziyu deitu zin, ze pentsa nun ez gaudela ohituta karino muestra hoiek ikustea.” E007

Eta gainera, harridura horrek zuzenean erantzun bat ekar lezake, isiltasunezkoa eta sotila bada ere, espazio hori norberarena edo “horretarako” ez dela sentiaraziz.

*“Behin bi mutil tonteatzen ikusi nitun tabernan eta beaiek atea zian deseroso sentitu
zialako, eta hori duela bakarrik 5 urte, imajinatu” N010*

Honek, egiturazko funtzionamendu bati erantzuten diola adierazi du batek baina gehiagok. Izan ere, jarrera sexista eta homofoboek onarpena dutela sentitzen dute, batez ere, beste espazio, herri edo lekurekin alderatu ezker, onartezinak liratekeen gauzak, Azpeitiako gau-giroan leku ematen zaielako.

*“Parrandan. Beste herrietan zenbait komentario ta jarrera kuestionau iten dia, baina hemen
ez.” N017*

Eta, bitxia da, aldi berean, protokoloaren existentzia ezagutzea, badela eta tabernariak badakitela jakitea, eta aldi berean, tabernak tentsio espazio moduan ulertzea oraindik ere.

*“Ustet Emakumin Txokokukin zeoze intzala, ta hostalaritza lan-taldeko batzuk jaso zebe
formakuntzie ta badaude langile batzuk formata hortako. Barrakuek hori badakibe, badao
protokolo hori ezarrita.” E007*

UDALAREN ESKU-HARTZEA

Udala herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa da eta, udalgintza, gertuko instituzio horretatik aurrera daramagun jarduna. Horregatik esan ohi da, udal politikak direla herritarren bizitzetan eragin zuzenena duten praktikak.

Azpeitiako LGTBI+ herritarrek ere hala bizi dute udala eta, oro har, udalak herritarrekiko ardura eta neurriak hartzen dituela sentitzen dute. Udaleko kideek ere, hala ulertzen dute haien jarduna.

“Azpeitiko udalak baliabide asko jartzen ditu beren herria zaintzeko.” U005

LGTBI+ gai eta eskubideei dagokionez ere, elkarrizketatuek ikusten dute udalak baduela zertan esku hartu eta eragin, baina beste gai batzuekin gertatu ez bezala, kasu honetan, identifikazio falta bat sentitzen dute, alegia, sentitzen dute, behar hori identifikatzerako orduan, zailtasunak egon daitezkeela.

“Perfil aldetik, LGTBI+ kolektiboko inor ez dakit dagon udalean, ikusiko duena behar bat dagola. Ez det uste inor egongo litzakeenik blokeatzailea, baina ez da inor egongo ikusten duna beharrezko edo lehentasunezko” N010

Udala da herritarren ordezkartza adierazten duen erakundea eta, beraz, herritarren nolakotasunak barne biltzen dituena. Baina, elkarrizketatuei galdetuta, gertuko instituzio honekiko identifikazio falta bat ere nabari da, alegia, zentzu batean ordezkartza hori LGTBI+ komunitatearen kasuan ez dela ematen sentitzen dute.

“Espazio instituzioala oso normatibua da, ez dago bestelako gorputz edo identidadeik, hausnarketa bat eman beharko lukete ea zein LGTBI+ proiektio degun udal bezala” N005

Hala ere, eragilean aldetik, egiten da balorazio zuzen bat politikoki ikuspegia txertatu izanarena, aldiz, herriko beste errealitate batzuekin talka egiten duena.

“Badago politika instituzionalaren ikuspegitik irekitasun bat. Bagaude garai batean politikoki zuzenak geranak, malguak eta irekiak, baina ikusten det gazteen artean aurkakotasun erreakzio bat ere badagoela.” E002

Ekimenak

Bada bereziki inpaktua izan duen udal ekimen bat. Bere horretan sinplea izan daitekeen zerbaitek, Azpeitian eta, batez ere, LGTBI+ komunitatean inpaktu berezia izan zuen; hain zuzen, LGTBI+ bandera udaletxean jartzearenak. Poza gailentzen bada ere, azpimarratzekoa da elkarriketatuek azaldutako harridura ere.

“Nei akordatzen naiz kuadrillako batek esan zitela ‘Joe mutxo Azpeitin LGTBI bandera jarri duela udaletxen txintxilik!’” N008

“Ikusi nabanian harrotasun egunian banderie Azpeitin, me sorprende, eztaikit igual udaletxetik espero dituzu gauza horrek, baino...” N007

Hala ere, bada kideen artean errepikatutako sentrazio bat ere, bandera edo adierazpen instituzionalaz gain, egiteko dagoen guztia edo dauden beharrak agerian uzten dituen [neurrietan jasota eratuko dira, baita garatuta ere].

“Oso ondo dago ekainak 28n udaletxien bandera jartzie, baino nolabait benetako konpromezu bat, azkenien udalak iti dake, ba bere menpe dauden langile danak formakuntza bat jasotzie” N009

“Egun horretan bandera, dena gay, gay, gay eta gero urte osun ezerrez... bueno zeozer in du baina gehiago egon beharko luke, nire ustez.” N018

“Oso instituzionala, bandera bat jartzie udaletxian... baino ez hola hitzaldiek eta, bueno Emakumen Txokuen bai... baina oso gutxi” N004

“Bai urtero udalak ateatzeula adierazpen instituzional bat ekainak 28ko eunin zehar neurri batzuk proposaez baino bueno, hor jartzeie neurri batzuk ikusi detena eztiela bete. Adibidez, komunetako sinbologie ta aldagelak eta lantzeko konpromisue hartzezula ta bueno, bide hortan behintzet ezta apenas in”. N006

“Bestela ba ekainak 28ko manifestua izango da, bandera... baina antolatu den dena beti izango da Emakumeen Txokotik edo zegoenean, herrian mugimendu feminista desberdinak edo Bilgunek edo”. N001

Eta azkenik, bada, LGTBI+ komunitatearentzat, eta ikerketa honetan pisu berezia izan duen elementu bat, aurrera begirako pausuetarako gako izango dena.

“Udalari zer esan? Hemen ikusgarritasuna falta dela eta beti berdinak ateratzeaz nazkatuta gaudela” N001

Politikak

Elkarriketatuek, dena dela, udalari egozten die LGTBI+ errealitateetan eragiteko gaitasuna eta baita ardura ere eta, izan ere, harridura azaldu da sarri ikerketa honen existentzia hutsagatik. Hala ere, badute halako exigentzia baina baita konfiantza ere, udalaren esku-hartzeak duen garrantzian.

“Instituziñuak iten dabena garrantzitsua da, eta horregatik, entzun nebanian Azpeitiko udaletxia holako zeoze in bihar ebala esan neban ‘ostras, brabo, azkenian, osea, plas plas plas!’” N007

“Beste gauza asko iteyen bezela, udaletxiak hor sartu beharko leuke eskue ta bere haritik eman o eztaikit”. N002

Herriarrek, esan bezala, bai egozten diote udalari herriarekiko kapazitate bat eta, bai sentitzen dute garrantziako erakunde gisa. Kasu honetan, babesari lotuta, eduki behar lukeen papera ageri da eta horrek duen garrantzia.

“Babes intituzionala bai o bai behar da, batez ere erasokin eta”. N004

Eta udaleko langileen artetik, hor dagoen hutsunean ere identifikatzen da, batik bat eraso eta indarkerien kontzeptualizazioan.

“Indarkeria matxista guk ulertzen dugu era itxi batian. Guretzat LGTBI+ erasoak ez dia indarkeria matxista, nahiz eta politikoki edo hola eskatu edo izan... guretzat ez litzake eskema horretan sartuko, barneratu in beharko genuke.” U005

Indarkeriari lotuta [hurrengo atalean sakonduko da], elkarriketatutako pertsonak argi dute ez duela trataera egokia izan eta herri mailan ikusi eta landu ez denez, zor sozial bat dagoela horrekin. Horri lotuta, ustea dago, instituzioek (kasu honetan, udalak) esku-hartu dezakeela edo behar lukeela aitortza horretan. Hemen, lehenengo aldiz azalduko da, baita ere, gerora errepikatuko den “erreparazio” kontzeptua.

“Nik ustet in beharrezkue dala, nik ustet herri honek ikusi in behar dula baitare jendik biolentziye pairau dula ta handik ba autokritika bat in ber dula ta... nik ustet jendik badakila zentzu baten badagola reparaziyo behar bat, ze herri honek bestela, ez dio iñoiz iñorri aitortza bat in eztakeu referenteik eta zentzu hortan ba nik ustet etzaigula ahaztu ber jendiek gaixki pasau dula, o pasau deula hobe esanda, ta ziurrenik gaixki pasatzen ai dala oaindiken eta ezin deula beste aldea beitu”. N006

Hartara, benetan garrantzia duen gai gisa ikusten bada ere, eragiteko gaitasuna izan dezan politikak diseinatu behar direla eta, gaur gaurkoz, hutsune bat bezala identifikatzen dute.

“Azpeitiko udalantzako lehentasunezko gai bat bada, hortako politikak diseinatu behar dia. Bai prebentzioai beida ta baita artatzeko momentuan ba nola artatu ta nola in akonpainamentu bat, bide orri bat egin beharko litzake. Nik ustet ez ditugula politika integralak.” U005

Azkenik, garrantzitsua den gako bat azaltze da, aurrera begira ezinbestekoa izango dena, alegia, udalak eta LGTBI+ komunitateak eskutik helduta joan behar dutela politiken diseinu eta aplikazioan.

“Komunitateakin gertuko lanketa bat egitea gertuko administrazioa bezela beraien beharrak, zalantzak, kezkak identifikatzeko. Eztakana lojikaik administraziok politika batzuk itea komunitate horrekin kontatu gabe.” U005

INDARKERIAZ ARI GARA

Aurreko ataletan sumatzen joan daitekeen gisan, erritoez, tradizioez, giro jakin batzuek, espazioaren banaketa desberdinak, generoen eraikuntza zurrunez, ikusezintasunak, isiltasunak, isolamenduak, ekimen publikoen faltak, erreferentzia faltak... honek guztiak, ezinbestean LGTBI+ pertsonentzako bazterkeria eta indarkeriarako testuinguru perfektua eraikitzen du.

Ezinbestekoa da elkarriketatuek eta, beraz, Azpeitiako herrikideek herrian bertan bizitakoa behar bezala jaso, duen lekua eman eta irakurketarako prestatzea. Atal luzea da, baina garrantzia berezia eskaini nahi izan diogu, herrian bizitako egoerei leku egiteko.

Indarkeria edota bazterkeria horiek ematen diren espazioak arloz-arlo xehetzen joango gara eta, hausnarketa gisa, hasteko, elkarriketatu baten gogoeta izango dugu abiapuntu.

“Ta nik iteten galderie da: LGTBI komunidadientzat bizigarriye da Azpeiti? Erosue da? Ba, ez dakit”. N006

Markaketa eta seinalamendua

Aurreko ataletan hainbatetan azaldu den ikusezintasun eta isiltasunak ondorio zuzenak dituzte komunitateko kideentzat: Bakardade sentsazioa, gaizki dagoen zerbait egitearena, lotsa... Baina horretan guztian, sotilak diruditen arren, giroan badaude ondo iristen diren mezu batzuk, zeinak argi uzten duten jarraitu beharreko bidea zein den. Jarraitu ezean, edo genero-arauen bat hautsi ezker, “nabaritu” ezker, tokatzen ez zaizun generoko lagunak eduki ezker... seinalazio bat eta markaketa bat emango da. Hainbat dira, hala sentitu diren herritarrak.

“Gaixki beituta bai” N018

“Seinalatute sentitu izan naiz, bai, ze azkenien nik beti euki izan det neskan kuadrilla ta horreatik bakarriken ya...” N004

“Nik bizi nun zerbait izkutuko bezela, ta pixket atetzen baziñen hortiken, ba bazinen punto fijo bat”. N008

“Batzuk bazeuden, zien esate zana blanco facil, zien asko notatze zikoben pertsonak. Etzan perfil bat inorrek nahi zuna antzeku izetie. Nere gazte garaien.” N019

“Garai hartan, 2000en, jendiak beitze zizun, hola, bitxo rare bezela edo [...] ta gure une txarrak pasa genitun ta gaxkiesakak eta eztakizer ta...” N002

“Nik esaten nun ‘nik ze in det? In deten gauza bakarra da nesken kuadrilla bat euki, ez naiz ezta iñorrekin liau, nintzen munduko pertsonaik diskretona, ta hala ere... señalauta bai. [...] ta hori nesken kuadrilla izan nulako, eztet imajinau nahi, mutilen kuadrilla baten ze izango zan hau, ez det imajinatu `re in nahi’”. N004

“Mutil danak igual jazten die, eta ez dioe aurpegira ezer esango, baina gero atzetik kritikau ingoue” E002

Bada giroan LGTBI+ pertsonak edota, nolabait, edozein arlotan genero arauak hausten dituztenek sentitzen duten seinalizazio eta markaketa. Hau modu sotilean eman daiteke edo zuzenekoan, alegia, akusazio moduan erabilia izan dela sentitu dute hainbatek.

“Akorda nitzen, oain dala ez asko, tabernan ginen nere lagun honekin eta etorri zan bat, gu baino urtebete gaztio ta esan ziten ‘ze, kasoik ez?’ ta esan nion ‘etzaitut ezautzen’ ta beak esan zien ‘nik zu bai, N014 zea eta lesbiani zea’ eta nik esan nion ‘kontxo, nik baino gehio dakizu, ni enitzen hola presentauko’ ez niyon hola inportantzi gehio eman, baino... egiye esan, ostia, fuerti da hola etiketatzia”. N014

“Oindik ere enakiyen zer nintzen, baino ya beaiek esatezieben ‘zu marikoya zea, zu eztakize zea’ ta ordun jo, ba esaten nun, nik jakin aurretik zuek ai zeate hemen nei katalogatzen zer naizen eta bai hori ba bueno iraiñek eta hola bai gogoratzeitutela. [...] hitzezko irainek eta oso presente, bai oso oso presente”. N006

“Akordatzen naiz, adibidez, X tabernan, kamarero bat euan eta kriston plumia eukan ta gañera oso mutil guapua zan, [...] gainera gure klaseko mutilak komentaze eben, gure klaseko mutilak rekuentua indda dare Azpeitin zenbat marikoi zeuden beraien ustez bat zan X-ko kamarerua. Beste bat jun zana Bartzelona...” N007

Onarpena

Edozein giza talde edo komunitatetan onartua izateko beharra orokorra da. Ikusi dugun gisan, LGTBI+ komunitateko kideek, sarri oso ondo ezagutzen dituzte arauak, izan ere, ez betetzeagatik zigortuak izan direlako, edo, onartuak izateko beharragatik antzeztu dituztelako.

Elkarrizketetan, onarpenari jarraika edo bazterketari beldur handiz bizi izan diren kide askoren ahotsa jaso dugu.

“Nik hasieran bildurre, bildurre ba onartua izango nitzen edo ez, eta kuadrillan txiki txikitatiko lagunek, ba iritsi zan momentu bat gehio ezin nunien, 15 urte bueltan edo, ta esan nien beldur horrekin”. N008

“Epaiaren beldurra eta presioa handia da” E004

“Fuolin beti ixkuta in izan det bai jugadore bezela ibili naizenin ta baita entrenadore izan naizenin. Bildurreatik betire gurasuk eta zoze gertau ezkeo ‘Este es gay y le ha metido mano...’ edo auskalo ze esango zebe.” N018

“Txikitan zaila izentzan. Nere familiye erdaldune da ta euskerie beranduo ikixi nun... hori gehi fuola etzitela gustatzen, gehi neskakin komodu sentitze nitzela eta abar eta abar. Ba zaile izentzan hasieran.” N015

Bazterkeria

Onartzeko egindako saiakera guzti horien gainetik, askok sentitu eta bizitu izan dute zuzeneko edo zeharkako bazterkeria eta, baita beste kideekiko ikusi ere.

“Bai, noizbait baztertuta sentiu izen naiz.” N015

Bazterketa hori forma askotan eman izan da, baina gutxiespena da errepikatzen den elementu horietako bat.

“Inguruko LGTBI+ pertsona batzuk ikusi ditut gutxietxita eta zapalduta Azpeitin” N010

“Azpeitin gizonezkuak [gayak] beti eon die, baina bueno oso marjinauta ta lanetan tare beti zailtasunek bilatzeko... oso baztertuta zeuden, etzeuden ondo ikusita. Guk beti ezautu izen diteu. Etzien onartuek.” E001

“Normalean gutxiespenak, pertsona bezela juzgatzea. Igual zuzenean irain bat ez, baina gutxio balitz bezela tratau bai” N010

“Ta horrek suposatu zuk nolabait kuadrillekin baitare, ba nolabait etetia, ze nola ez fubolien jokau, ba bueno ya etzaitugu inbitatzen ezta kuadrilako bazkaira, eztakit zer... ta bai, nik hor bazterketa bat ere jaso nun”. N006

Eraso zuzenak

Hasieran aipatutako markaketa horretatik edo heteroarauak inguruan sortzen duen sententzioaz gain, asko dira, zuzenean erasotuak, jazartuak edo markatuak izan direnak. Batzuk modu bortitza gaitzen, fisikoki izan daitezkeen gisan, baina oro har, arrisku sententzio bat eta jazarpen jarraitu baten bizipena gailentzen da, uneoro kontuz ibili behar izatearena, edo, irainak normalizatu behar izatekoa. Esperientzia anitzak dira, baina denak indarkeriaren markoan kokatutakoak.

Jazarpen jarraitu hori bizi izan duten norbanakoek, beldurrez oroitzen dituzte garai horiek, beste batzuek, aurrera egiteko normalizatu behar izan zituzten esanak, baina guztiak pertsona hauen bizitzak orbain zuzena utzi dute.

“Seinalauta bai, gehi, hor eon zan denboraldi bat oso gaixki pasau nuna, DHB 3-4, ze bueno, egunero-egunero etxea juten nintzenien bazeon mutil talde bat nere etxe azpiyen nei ‘marika’ hotseiteko. Egunero-egunero. Ordun izan zan ikasturte osuen zihar pasa ber izan nula hori. Ta momentu hortan eztakit nundik ateatzen dituzun indarrak, sin mas, aurrea iteko”. N004

“Garai baten marimutilek asko esaten ziguen, denboa guztin” N005

“Eta nik nere bizipen pertsonaletik, bollera bezela igual gutxiyo, baino kuadrillan bai euki det gay bat, lagun min bat non ikusi ditugun gure nerabezaro garai hoitan bastanteko erasuek eta... bai, tentsiyo bat bezela”. N008

“Beldurra dauket hau iten badeu ea norbait izango degun atzetik” E002

Ahozko erasoez gain, espazioaren inbasiora edota zuzenean indarkeria fisikoa erabiltzera ere iritsi izan dira egoera batzuk.

“Ta behin goatze naiz parrandan ginela, batek esan zigula ‘lesbianas de mierda’ ta eztakit ze, baino hoixe zan” N014

“Gehien bat ahozkuak, baino fisikuak e deitu leizke ba izotzak botatzie dantzan dabilelako baten bat etzaiena iruitzen egoki dabilela edo... ta begiradak” N008

“Leno re beti ezautze ginenan baten bat, herriyen beti eote hunan, gure kuadrilan e ibiltze zan bat. Deklaraue zan ta mozkortzen zanin beti hostiauta bukatze zun.” E001

Eta badira, zuzenean espazio publikoan, modu sinbolikoan LGTBI+ pertsonentzat garrantzia izan dezaketen lekuetan edo pertsonengan jazarpena edo erasoak ere gertatu direnak. Honek, garrantzia eta inpaktu berezia du beste LGTBI+ norbanakoengan, disziplinagarria den zerbait bilakatzen da, bestei edo zu zaren horri sinbolikoki herriak egin edo esaten diona zuzenean norberaren kontrako zerbait bezala bizitzen delako.

“Pintada batzuk agertu dira LGTBI+ bandera margotu zen tokietan horren kontra, gazteleraz” E002

Eskola

Eskola bada esparru bat, bereziki aipatua izan dena eta elkarriketatuen bizitzan inpaktu handiena bizi izan duten espazio gisa identifikatzen dutena.

Eskola, bere horretan haur guztiok izan dugun lehen sozializazio esparrua da. Gizarte txiki bat bere arau eta ordena sozialarekin. Aski ikertuta dago LGTBI+ komunitatearentzat historikoki oso bortitza izan den esparru bat izan dela, hain zuzen, gizarte txiki horretako arauak, normalean helduen gizarteko arau bertsuak errepikatzen dituztelako, eta, ez delako urte askotan prebentzio ez lanketa berezirik egin.

“Ni txiki-txikittetik izan naiz klaseko diferentia, ta zergaitik? Ba ni beti neskegaz ibiltzen nintzen, mutilakin eneukan harreman handik, baina gure klaseko neska gehixenak hasi zien euren artien ibiltzen ta ni ezetz bezela”. N007

“Bai, eskolan. Eskolako girukin errexena identifikatzeana edo pasilotan grupo asko builaka jartze zaizkizunin o patiyun o...” N019

“Gelatan sortzen diren giroak oso kastratzaileak dira, gehio hitz egiten dutenak norberaren intseguritateez” E005

Lanketa eta kontzientzia faltak, sarri, irakasleen aurrean babes eta ulermen falta sentitzera eraman ditu elkarrizketatu asko. Haien esperientzietan gutxi dute sentazioa heldu mundutik, eta kasu honetan, irakasleen partetik babesa sentitu izanarena.

“En mi experiencia se da en la escuela, al salir, y también en la calle. Mediante burlas y chistes. La gente de alrededor no dice nada, y los profesores pocas veces. A veces lo hacen a escondidas” N011

“LH 5 edo 6 izengo zan eta hor oso presente dauket baitare ez, gurasuk euki zebe parte-hartzia, ze nik ustet gurasuk oso konsziente zila ni ze ai nitzen pasatzen eta iruitze zait iñork etzula ezerre in, iruitzezait gurasuen papel hori etzala bate zaintzailie izen, jo eztakit ‘beitu ze ai zaion pasatzen ume honi, nere umie ondo dabilen artien ta guri etzaigu inporta’ ta jo, ostra horrek oaindiken superau gabe dauket, ze oaindikan kalin ikuste gea, herri txikiye da eta marka ziten zea da”. N006

“Alguna vez me han dicho que mi identidad es una tontería, y los profesores han hecho oídos sordos” N011

“Eskolarekiko, ba nik dauket oroitzapena irakasliek esatezabela baten bat zukin sartzen bada edo zeoze itebaizu, kontau, eta kontatzen zenionien esate zizuen ‘ba denak zurekin sartze badie, zerbait ingoyozuen seinale’, nolabait biktimai leporau errue”. N009

Familia

LGTBI+ pertsonentzat, familia ez da beti espazio segurua izan norbere burua garatu eta adierazteko. Familia anitzak eta garaiazen arabera desberdinak badira ere, askok ez dituzte herriko familiak babesleku gisa ulertzen.

“Familiak oraindik ez dira espazio seguruak. Tabu handia dira.” U001

“Gurasok Azpeitin nahiago dute LGTBI+ seme-alabarik ez izan” U001

“Homosexualak zeuden familiyan ixiltasune zen nagusi, tabu zan” E004

“Hemengo askoke esango zebeen holako zeoze tokau ezkeo albokun etxin hobe.” E001

Kontaketa desberdinetan gainera, aiten figurak pisu handia jarraitzen izaten du. Sarri, amaren onarpena bai, baina aitarena ez da izaten, edo ezin izaten da lasai hitz egin. Gainera, aitatasuna mutil gayentzat gizontasunaren sinbolo ere izan da.

“Lehen familitikan botatzen zizuen, edo ezkutau, oaindik lagunak ditut Aitak onartu ez duna” E004

“Seun ze attei esaiozu eh, zutaz espero duna izetie eztaize, baine atte horrei begira ezin dezu bizi” E004

Indarkeriaren ondorioak

Indarkeria hauek zerrendatzearen arrazoietakoa bat, sotilak diruditen gauza guzti horiek pertsonen garapenean uzten dituzte ondorio zuzenak aztertzeke ere baliogarria da.

Halako giro, markaketa, eraso zuzen edo sinboliko dagoen testuinguru batean, lehenengo erreflexua norbere burua babestearena da, eta horrek, sarri, armairuan bizitzea esan nahi du.

“Nire adineko jendea ezagutzen det, ezkondata dagoena, sema-alabak dituen, eta galdetzean:

-Zuk noiz esan behar dezu pasatzen zaizuna?

-Inoiz ez

-Ostras, eta bizi osua hola biziko zera?

-Bai

-Eta zoriountsu zera?

-Ez, baina hori da tokatzen zaidana” N013

“Badago jende pila bat ez dena atera armairutik, esan duna ba nire bizitza horrela izango da, 45 urte ditut, ez det pausua eman, umek ditut, dibortzioa... ba betirako horrela izango da” E004

Guzti honek, lehenago aipatu gisan, ez die LGTBI+ pertsonen bakarrik eragiten, baizik eta kolektiboarekiko pertzepzio eta iritzi bat sortzen du herrian. Horren ondorioa argi ikusten da, esaterako, haur eta gazteen artean. Elkarriketatuek hori bera nabaritu izan dute.

“Ume batzuk gurutzatu nitun eta bata besteai esan zion: lesbiana izetie gaixki dao” N017

“Umeek ortzadarrakin pintauta dagon zebrabidie salto iten dute ez zapaltzeko eta beaiek ez izeteko” E002

“Gizonen jarrera hoiek hor daudela oaindik eta umiekin ikusteala, ikasle bezela pixket desberdinek dien hoiekin emateiela fijaziyo batzuk...” N008

Beste arlo batzuetan ere badu eragina, kasu honetan, zuzenean LGTBI+ pertsonen garapenean ere. Urteetan jasotako mezu batzuk barneratu eta sinisterainokoak. Honek gauza batzuk egitera edo ez egitera, edo espazio batzuk norberarenak ez sentitzera ere eramán ditu hainbat. Baita, norbere jarrera batzuk aldatzera ere.

“Nei ere pasa izen zaitelako, esateizeut kirolien enintzen hain ona edo bestiek bezain ona, ta nik urte luzez kirolakin euki detela holako retxazo bat. Gero pixkanaka jun naiz gerturatzen ta oain kirol dexente iten detela, baino lehen neretzat kiroldegira jutie zan hola, ‘nik hemen ze itet’ edo ni aldageleta jutie igual beste batzui molesta ingoyo...” N006

“Oain pluma gutxiyo daket txikitan nakena baño.” N015

Eta urteak pasa arren, harreman afektibo-sexualak edota ligatzerako orduan, muga hori ere sentitu izan dute, batik bat Azpeitian bertan pentsatzen jarri ezkeró.

“Mutilengana ligatzera joatia asko kostatzen jat oraíndik gaur egun, nahiz ta errezago, modu natural baten eztot iten eta gaur egun oíndiokan gizonen aurrian plumia ezkututzen dot, da, reflejo bat... hori badaukat oíndiokan markatuta”. N007

“Azpeitin bikote bat eukitzia ez det planteau ere in iñoiz. Iya inposiblia iruitzen zait” N004

Oro har, bada bakardade eta isiltasun sentrazio horrek utzitako zauriaren errelatoa, hurrengo esanak ederki laburbiltzen duena.

“Azpeittin danok oso ikututa amaitu deula, ze beste batzuk ezautzeitutenak hola, eske danak... eta ba, iñok eztozkule galdetu, nik hau iñori etxat kontau (laguneri aparte)”. N007

OFF
ITZAL HADI HEU!

Badira jada 6 hilabete, Santo Tomas eguna zen, herriko hainbat eta hainbat heldu, haur eta gazte kalera irteteko gogoz ginen. Harro euskaldun izateaz, gure-gurea sentitzen dugun arbasoen ondare, kultur eta festaz girotuta, lagun artean bilduko ginen taloa jan, euskal giroz busti eta eguneroko errutinari haize preskoa emateko. Erraza historiaren alde indarra egitea.

Gogoratzen dut herriko hainbat festatan txiki-txikitatik tradizioz dagozkigun milaka urtetako rol zein jantziekin zalantzak izaten nituela, Santo Tomasak, Inauteriak, nire lehen jaunartzea... eta horrela izan zen: “Emakumeen baserritar trajea jantziko dut gaurkoan, emakume baserritarrek artajorrean, soroan, errosarioa erreztatuz artoa aletu, eta bitartean etxeko beheko suan, ekonomikan... horrenbeste ahok dastatu eta sabel eta gorputzak indartzeko sukaldatu, garbitu... zaindu gaituztelako omendu nahi ditut. Elegante egunean ez bezala, “Egun horretan estereotipoak hausteko trajez joango naiz, eroso, eta inolaz ere ez takoi, poltsa deseroso eta gona astun horrekin”. Bai, neuk ere trajea egin nuen, dirutza ordainduta, barkatu ama! Ez naiz berriro presio sozial horretan gehiago eroriko. Zaila historiaren aurka indarra egitea.

Jendetza kalean, plaza beteta, kuadrillan umore ona, algara, elkartze... beste hainbat lagun, ezagunekin gelditu eta kontuak kontatu. Erdikalera abiatu ginen eta Zuhutzen sartzea erabaki genuen. Ordurako nahiko ausardiaz genbiltzan lehen dantza pausoak egiteko. Ilaran sartu ginen bata bestearen atzetik, ate ondoan pilatzen den jendearen artetik, eta, barruan zegoen jendetza ikusita, eskuinetara gelditzen den txokoan kokatu ginen. Hormaren kontra bi neska gazte, muxuka xamurtasunez, ilea laztanduz eta irribarre goxoz, libreki, ez zen eurentzat hondo kristalinoagorik. Kuadrillako batek zuritza eskaini zidan, eta tragoa hartzera nindoala, 20 urte inguruko mutil gazte bat eskuaz mugimendu ortopedikoak egiten ari zela konturatu nintzen, hasieran distantzira, gero, geroz eta gertuago. Eskuan telebistako mandoa izango balu bezala, bere hatz lodia botoia zapalduz, niri horren xamurra iruditu zitzaidana, hark itzaltzerik besterik ez zuen nahi, bi neska haien artekoari “off”. Festako 20 minuturik luzeenak izan ziren; lehenik, behatzea erabaki nuen: heteropatriarkatua, boterea, gizontasuna eta pribilegioak. Beste 3 neska inguruan isiltasun deserosoan, eta beste mutil kuadrilla bat banaka, elkar ohartaraziz “beitu zak horrea!” buruarekin ezetz eginez, baina irribarri

txikiz eta inguruko begiraden aprobazioa bilatzen, exotikoegia beren normaltasunean. Ondoren, haserrea eta amorrua, ez naiz tabernatik irtengo eurenak diren erasoak salatu gabe. Konplizeak bilatu nituen gertatutakoa azalduz, eta zalantzarik gabe, 20 urteko gazteari deitu genion: “Pisstt, pisstt!!”. Hiruok esku banatan geure mandoa genuen, eta hatz lodiaz gogor ekin genion bera itzaltzeari. Horren metaforikoa iruditzen zait; itzal hadi! “Metxeroa behar duzue?”, horren estrategia kutrea zein engainagarria, orduan animalia izuak zioen: “Zer gertatzen da ba?”. Indarkeria modu askotara mozorrotu baitaiteke.

*Herri honetaz harro sentituko naizen norabidea garbi dut: apirilean emakumeen txokoan 17 mutilek maskulinitate berrien ikastaroan izen eman dutela jakitean, eta arrakastatsua izan dela ohartzean, herriko erakunde zein eragile, guraso elkarte, ikastola eta ikastetxeen artean hezkidetzaren berebiziko garrantzia nabarmentzen denean, ez diruz, ez hitz panpoxoez... benetako praktikan baizik, LGTBIQ+ kolektiboaren beharrak behingoz azaletik gertuen ulertzera iristean, eta ez “Eta orain zer, zozo arruntak sentitzen bagara?” bezelako adierazpenetan, guk aski **erle txorien** ainako migrazioa egin dugunean eta “Altxa Lili!” bezalako ikuskizun eder bat Sanagustinera iristen denean, Gure Azpeiti horretarako herri seguru gisa izendatzen dutenean. Libre ikusteko aukera daukadanean, libre bizitzeko aukera daukagunean.*

SEXILIOA

Herriaren argazkiarekin amaitzeko, bada ondorio garbi bat, LGTBI+ pertsonentzako herri bizigarria (izan) den edo ez definitzen duena: sexilioa. Alegia, norberak bere jaioterri, esparru natural edo bizitokitik alde edo ihes egin beharra izatea, haren identitate, sexu lehentasun edo genero adierazpenak askatasunez garatu ahal izateko.

Modu askotako sexilio mugimenduak daude. Izan daiteke kontzienteki itogarria edo indarkeriazkoa den testuinguru batetik ihes egiteko beharra edota, izan daiteke, behin beste arrazoi bat dela medio (adibidez, ikasketak) kanpora egitea eta behin bertan, jatorrizko testuinguruaren indarkeriaz jabetzea.

Gainera, denbora eta espazio desberdineko mugimenduak ematen dira, adibidez, izan daiteke, kanpoan bizitza berri bat hasteko bidea egitea eta jatorrizko herriarekin harremana etetea, edota, denbora baterako joan, bertan “askatasunez” identitatea garatzeko aukera izan eta, ondoren, bertatik ahaldunduta herrira itzultzea.

Badira bestalde, aldi baterako sexilioak ere, esaterako, aisia edo ligatzeko esparruen bila ematen direnak.

Edonola, elkarrizketatutako pertsona guztiek egin dute unerren batean sexilio mugimenduren bat haien desira, identitate, praktika edo genero adierazpenak garatu eta bizitzeko asmoz.

Sexilioa, bestalde, ez da sekretu bat, herri guztietan jakiten da, batzuk “kanpora” joaten direla “beste bizitza batzuk” egitera eta, horrek berak ere berriz indartzen die geratzen direnei, herria ez dela, kasu honetan, LGTBI+ kolektiboko pertsonak garatzeko leku bat.

“Herriak bazekien batzuk bere kondiziyuagatik kanpora juten ziala, baina etzan galdetzen”

E004

“Herri honek badauko horrelako “bai, esperimetau, baina herritik kanpo” E005

Izan ere, hirietara ihes egitea izan da askorentzat herrian armairutik ateratzeari aurre ez egin behar izateko modu bat.

“Jende asko ez da armairutik atera. Asko hirietara jun dira” E002

Ihesa

Isiltasun eta ikusezintasunaren atalean aipatu gisan, herriko LGTBI+ pertsonak herria atzean uzteak ere, pertenezia falta eta bakardade sentazioa areagotzen die geratzen direnei. Hortaz, haien beharrak eta desirak onartuta, lehen pausua, kanpoko komunitatea bilatzea izaten da, sarri ligatzeko bada ere.

“Nolakoa izan den nere bizipena herriarekin? Ba zero, ikuspegi lesbianatik edo bolleratik zero, ze etzegoen inungo erreferentzirik eta lortu nuen bakarra izan zen aldizkari horren bitartez eta Bizkaira eraman ninduen” N001

“Ni, ligatzerako ordun beti Azpititik kanpo izan naiz, ze nik momento batian pentsatzen nun Azpeitin etzeola... osea hain da herri txikiye, emateula denok ezautze geala ta aldi berin eztakigu, ez gea elkar ezautzen, ta horreatik igual ez gea batu eta ez deu ekintza bateratuik in”. N006

“Ordun nere Ekainak 28 guztiak Bilbon dira, Donostian bakarren bat edo Azpeitin bakarren bat egin izan degu, baina nere harremanak, gaueko parrandak, taberna lesbianotan edo bollerotan edo nesken tabernetan hirietan izan dira, eta herrian zero, ez det izan harremanik”. N001

Askok ordea, hain kontziente ez bada ere, ikasketak kanpoan egiteko momentu horrekin lotzen dute irekiera eta askatasun fase bat.

“Unibertsitatean kanpora joan nitzen, eta hemendik ateratzea asko erraztu dit prozesu honetan” N013

“Ni 18 urtekin joan nitzen kanpora ikastera, ta ni oso kontziente izan gabe izan zan sexilioa, ze han jarraitzen det horregatik” N007

“Ni armairutik atea nintzen, o bueno, mutil batekin lehenengo kontaktua euki nun ba 19 urtekin. Hirira jun nitzen bizitzea eta [...] neretzat izan zan askatasuna”. N004

“Nik uste eragina dula herritik ertetziek, badaola adin bat, unibersidadea o hemendikan kanpoko mundu hoi ezautzen hasten zean puntutik, nere ingurun behintzet, ba ya 18 urtea allau izan behar dezula ba ya hiriburu batea juteko edo beste harreman batzuk iteko,

ikusteko ez dala itxitasun hontan existitzen mundu bakarra, ta horrek in diyoe irekitzeko edo teknologiyek ere". N008

"Enitzen horreatik etorri [hirira] baino egiye da liberaziyo haundiye izentzala." N016

"Ba ya behin kanpun zaudenin errezo da. Baina bai egiye da Azpeitiko infantzi horrekin e nola gera zazun barrun, hor segitzeu. Ezta iguela hiriyen o Azpeitin baino zuk dazkezun bildur minimo batzuk hor geratzeie nahiz da zuk ikusi hiriburutane pasatzeiela." N019

"Hemendik kanpo jende asko ezautu nun... eta ikusi nun nere errealitateiek beaien bizipenakin bat ite zula. Ta hola ezautu nitun nere errealitateiek. Azpeitin gauza konplikauena zana ezautzie zala iruitze zait, zure etiketak bilatzie eta etiketa hoiek ulertzie. Eta hortik atea nitzenin ta kanpoa jun nitzenien hor iriki zitzaiten pixket mundue, alde hortatiken." N016

Askorentzat, bizitzera joan gabe ere, herritik kanpo ateratzeko aukera izatea bakarrik izan da irekiera bat bizitzeko bide eta behar bat.

"Neretzako kirola bai izan da bide bat, kanpoa ertetze giñenien ta ikusteko beste mundu bat, adibidez, neskak ile motzakin" N008

Kanpoan bizi direnek, argi dute, haien garapen pertsonal eta sozialean zerikusi handia izan duela horrek berak eta, jakitun dira kanpoan bizi behar izan dutela hori gerta dadin.

"Ni Azpeitiyan biziko banintz, nere biziye oso oso direfentia izengo zan, hemen, lesbiana ta bisexual asko asko ezautzeitut, kirol munduen behintzet, eta bueno, lagun mordua dauzket ta hemengo biziye ez da hango iguala" N014

"Kanpuen bizi naiz, herriko beste hainbat gay eta lesbiana bezela" N004

Itzulera

Batzuk ez dira inoiz itzultzen eta haien bizitzak beste leku batean garatzen dituzte. Errealitate horren kontzientzia badago elkarriketatuen artean.

"Nik uste jun dienak asko, gehienak han gerau diela" N006

"Sexilio handia egon da" N013

Beste batzuk ordea, momenturen batean itzuli dira, garaiak, adinak edo dena delakoa aldatu ostean.

“Asko gaztetan Bartzelonara jun zian eta gero 50 urterekin etorri dira” N013

Esan dugu ordea, sexilio batzuk mugatuak direla, edo tarte jakin bat irauten dutela (adibidez, ikasketa garaia) eta itzultzeko momentua ere heltzen da.

Kanpoko bizipen horiek gauza desberdinetarako balio izan dezakete, esaterako, armairutik ateratzeko indarrak batzeko, edo, itxuraz arrazoi ez hain pisuzkoa diruditenak, baina kasu batzuetan ezinbesteko izan direnak, adibidez, ilea moztu nahi izatea.

“Kanpoan ikasi nuen eta bertatik itzultzean atera nintzen armairutik, nahiko gogor eutsi nizkion nik armairuko ateari” N010

“Jende asko hiriburuta jun da eta gero itzula da herrira diren moduakoak izaten” N017

5.2. Zeri esker biziraun dugu?

Erresistentzia eta babes-sareak arakatzen

Lehen zatian zehar ikusi dugu herriko LGTBI+ pertsona eta komunitateak Azpeitiari buruz dituen usteak, baina batez ere bizipen eta irakurketak. Horietan, isiltasuna, bazterkeria eta indarkeria sarri azaldu diren kontzeptuak badira ere, haietariko askok herrian bizitzen jarraitzen dute edo Azpeitiarekin lotura emozional eta praktiko bat mantentzen jarraitu dute.

Ikerketa honetan, aurrera begirako pausuak eman asmoz eta, biziraute horretan hori bera posible egin dute gakoak aztertu asmoz, irauteko eta izateko ezinbestekoak izan diren elementuak aztertu nahi izan ditugu.

Erresistentzia espazio, kide eta babesek osatutako sarea da, balioan jarri ez ezik, horietatik ikasi daitekeena azpimarratu asmoz.

NOR IZAN GAREN

Erreferenteak

Gehiengoaren parte ez den giza-kolektibo bateko kide izatea, sarri, bakardade sentsazioan hazi eta hezte da. Oso ohikoa da LGTBI+ pertsonak haiek bizi dutena haiei bakarrik gertatzen zaiela pentsatzea. Horregatik hitz egiten da hainbeste erreferenteez (eta haien faltaz), izan ere, LGTBI+ pertsonak existitu ahal izateko, ezinbestekotzat dute heteroarautik at beste eredu batzuk izatea eta jarraitzea.

Hain zuzen, erreferente falta horrek, umezurtz uzten ditu asko, eta Azpeitian ere izan da askoren kasua.

“Inpensabilia zan, tabua zen, ez zegoen erreferenteiken. Eredu faltie handia izan da.” N005

“Nik 15-16 urtekin uste nun bakarra nintzala herriyan mutilak gustatze zaizkiena, osea, etzeola beste iñor nere adinen, baino eztare enekan erreferentzirik, ta nik uste hori dala bai nei ta bai nere inguruko askoi pasa zaiguna ba erreferenteik ez eukitzia, ez eukitzia elkarriketaik honen ingurun iñorrekin ta sentitzia zeoze gaizki ai zeala iten”. N004

“Neretzat oso garrantzitsua izango zan bisibilidadia ematea eta erreferentek eukitzea, nik uste 16 urteko N004k eskertuko lukela ikustia ez dala bitxo raro bakarra ta jende gehio dagola bea bezela pentsatzeuna o ez dala bakarra” N004

“Eske gertatze zitzaiten 18-19 urte neuzkenien enekela ez lagun gayrik ez... oso bakarrik neula. Aurrekun justu leitze nion Rodrigo Cuevas abeslariai esatezula beak uste zula 18-19 urtekin oaindik etziela iritsi marikoyek Asturiesea ba nik ere pixket sentsazio hori euki nun, eztauket iñongo referentzik”. N006

“Ba Azpeitin oindala urte dezenete etzan lan errexa, etxin 23-24 urtekin erten nun armaiotik ta gauze bat eztana dauden referente 4-5 ezautzeitutena gure edadekuk gazte jendie ta beste danak geunden isilik, etzan bate erreza.” N019

Izan ere, LGTBI+ kolektiboko kideek, hain zuzen, erreferente falta horrengatik, begirada fintzen eta identifikazioak bilatzen adituak egin izan dira, nolabait, aipatu dugun inguru heteroarautuan arrakalak aurkitu nahian.

“Ez dakit erreferenteik, baino nei beti atentziyue deitzen diate normatik ertetzen dien emakumeen figura hoiek edo hola” N008

Askotan, hala ere, figura horiek aurre egin beharreko errealitatea ere erakusten dute. Eta aurre egin beharreko hori gogorra izaki, nolakotasun konkretu batzuk ere izan dituzte erreferenteek, eta hor, badago haiekiko errekonozimendu bat ere.

“Nik ikusteituzte perfil gogor bezela, Azpeitiko herriyeyi aurre in behar izan diotenak, pertsonalidade fuertiakin” E002

“Jartzen naiz pentsatzen, gure garain zer zen lesbiana izetia, bueno, hauek ere badia, baina 16 urte gazkegenula zer zan lesbiana izetia eta etzan bate errexa momentu hoietan hola agertzea herrien, edo festetan egotea neska batei muxuka [...] eta garai hartan oso transgresorie zala.” N005

Askorentzat erreferenterik izan gabe, haiek erreferente izan behar izateko pausua ematea ere tokatu izan zaie, eta ez da kasualitatea aspektu horretan ere, beldur edo erreparoz jokatu izana. Esan honek argi uzten du publikotasun horretara salto egiteko bizitako zailtasunak.

“Uztarria, herriko aldizkariak, duela urte asko, igual 20 edo gehiago, elkarte bat sortu genun, Urolako Gay eta Lesbianen elkarte, eta portada bat zegon eta barruan, ni eta herriko beste mutil bat, gay zana atera ginen ta nik eskatu nuen nere burua ez ikusteko. [...] Ta nik neukan buruan pixelatuta zegoela nire burua eta ez, pixelatuta ez dago, dago itzal erraldoi bat. Orain pentsatzen jartzen naiz eta gaur egun hori egingo nuke? Seguruenik ez, baina orduan neukan 2-3 urteko alabatxo bat ta nik hori babestu in behar nun, eztakit nola esan, gero zer, kalean ‘zure ama eztakit zer’? Krudeltasun hortatik, ordun momentu horretan eskatu nun, nahiz eta mundu guztiak edo nere ingurukoek jakin ba lesbiana nintzela, publikoki ez nuen aurpegia eman”. N001

Baina ikusten ikasi ere egiten da, eta hasieran, baztertuak diren horiekin ez identifikatu nahia ere badago, hori bera ona ez denaren asimilazio bat dagoelako. Baina behin norbere identitatea garatu ahala, berrikusten ere ikasten dela erakutsi dute hainbatek.

“Nik asimilau arte ez tet inor euki referente bezela. Ze etzan antzeko ezerre nik nahi nunik. Behin etxin esate zunin ta familikuk ta enteratzeizenin ya esatezu egiye da hauek euki debela beiaien puntue gazte-gaztetatik nola relaciona dien eta ta inbiri puntue, baino referente bezela ez tet iño konsiderau.” N019

Erreferenteak, alegia, gure prozesuaren parte ere izan daitezke, berdinen arteko elkar-ezagutza eta errekonozimendua dakartenak.

“Nik ez det antzematen zerbait sakona, baino igual nere irudipena da, bai dakatela irudipena, nolabait gaur egun, hasteko, nik esan nunien mutila nintzela, enun inor ezagutzen nere egoeran Azpeitin, gero enteratu nintzen bazauela beste mutil bat baino ez zan Azpeitin bertan bizi, ta geroa bai ezautu ditut beste bi mutil Azpeitin bizi dienak, beste emakume transexual bat Azpeitin bizi dana”. N009

Hala, badira egun ikerketan parte hartu duten pertsonentzat garrantzitsuak edo gogoan dituzten norbanakoak, eta, elkarriketatuek argi dute, funtzio bat bete izan dutela, haiengandik ikasi dutela, edo haien bizitzak posible zirela ikusi zutela.

“Herrian bazegon pertsona bat gay zana eta herrian nahiko onartu zan, “Gure” gay-a zan. Gero jakin beherko da ze esaten dan soziedadetan, baina nahiko onartua zegan” N005

Eta erreferenteekin gertatzen dena izan ohi da, espazioa konpartitzean transmisio bat ere ematen dela, berdinen arteko ulerkera bat eta elkar elikatze bat ere.

“Batzuk bazeuden, ta zeuden oso oso identifikatuta, bakanak zien baitare. Askotan pasatzea hain gutxi gea, ba zeanien asko zeatze zaituela, oso seinalauta sentitze zea bai, oso oso seinalauta”. N004

Gainera, badira LGTBI+ kolektibokoak ez diren erreferenteak ere, ateak, bideak eta jokabideak irekitzen laguntzen digutenak, edota gure pentsakera aldatzen. Pertsona hauengan inpaktu berezia izatera iritsi daitezke.

“Txikatako lehen rekurdoa jakin nula lesbiana zertzen zan pintada bat ikusi nulako Azpeitin “Lesbianismoa eta zer?” Nik eukiko nitun 9-10 urte. Nire ahizpa zaharragoai galdetu nion ea zer zan eta ahizpek esantzin zala neska bat beste batekin ibiltzen zinin eta nik esan nion “que asco” eta orduan bronka bota zian hoi esateagatik!” N005

Pertsona konkretuez gain, garrantzitsuak dira gertakariak, erreferente kulturalak, sare sozialak edota ekimen konkretuak.

“Gertakizunak, Azkoitin eraso homofobo bat egon zanin eta baita mutil trans baten trantsizioa.” N005

“Mediante Tik Tok hubo un video que me ayudó a saber lo que me estaba pasando” N011

“Bai, adibidez Queenen pelikuliek. Euskerazko kantu batzuk ere bai.” N018

“Gazteak giñanin, Sexo seguro para mujeres tailer bat antolatu zuten” N005

Josune [izen asmatua]

Ikerketa honetan zehar, ordea, bada pertsona bat, ia elkarriketa guztietan azaldu dena, elkarriketatua adin, genero edo sexu aukera dena delakoa izanda ere. Pertsona honek herriko erreferentearen papera betetzeaz gain, parte-hartzaileen partetik errekonozimendu eta eskertza ere jaso du.

“Bueno badao bat, Josune bada erreferente haundi bat. Bisibilidadie eman dio herriyen. Bere biziye holaxe in du”. N015

Bere biziya publiko egin izanak, herrikide batzuegan zuzeneko eragina izan du, nahiz eta jakin burla, bere izenaren maskulinizazioa edo bazterkeria jaso izan duela, berak gauzak publikoki esan izanak, beste batzuei aukerak ireki izan dizkie.

“Eta gero hau, nola da Josune? Erreferente ez nuke esango.. bueno baino egiye da Uztarrian liburuxka batzuk ite zituztela biografi ezberdinek ite zitun... Eta hor Josune intzioben bat, ta hor akordatze naiz atal bat zeola Josunek nola ezautu zun bere parejje kontatze zuna, zala neska bat... Ta akordatze naiz nola ibili nitzen horren bile, nola topa zun bere parejje irakurtzen ta...” N003

Argi dute ez duela bide erraza izan, gainera, hurrengoentzako ere, zeure biziya publiko bizitu ezkerio jaso dezakezunaren sinbolo ere bilakatu izan da, baina argi dute hurrengoentzako bide bat ireki duela.

“Josune, beti azaldu izan da lesbiana bezela, desde los años katapun, eta insultoak jasan izan ditu. Bera izan da herrian ezagutu dudak aurreneko lesbiana eta nik uste det zailtasun pilo batekin libre maitatzeko aukeraketa hori egin zulako”. N001

“Askotan Josune isla izan da de ‘herrian lesbiana bazara, vaya hostias que te dan’, batez ere, gaztetxoa nintzanean, 14-15 urte nituenean. Gerora, harreman izan dugu eta ni neu ere... baina Josuneren presentzia oso inportantea izan da lesbianeiei dagokionez. Eta insultatzen zuten e?”. N001

Genealogia

Genealogiak dira LGTBI+ komunitatearen beste hutsune handi bat. Izan ere, isiltasunean eta espazio pribatuan mantendu behar izanak, badu halako sentrazio bat beti zerotik hastearena.

Horregatik, garrantzia berezia du jada pasatakoa jaso eta ondorengoei transmititzeak. Bakardade eta bide irekitzaile sentrazioak jaisteko. Memoria kolektiboaren erakuntza bat, azken finean.

“Nik uste erreferente falta nabarmen bat daola, memori iye ezta in eta bueno ikasgai pendiente bat badala Azpeitiyentzat”. N006

“Referentzi hoiek identifikatziena, badakit Hernanin in debela halako 50 urteko historiye jaso... holako zerbait itia ondo eongo zala, jakiteko benetan nondik gatozen, herri hontan ze gertau dan eta herri honen parte diela” N006

Militantzia eta aktibismoa

Hainbatetan aipatu da, mugimendu sozialek edo espazio politizatuenak historikoki ez direla izan LGTBI+ aldarriak garatzeko esparruak, ezta ere, pertsonalki garatu ahal izateko espazio seguruak ere.

Baina, lesbianen kasuan, garrantzia berezia izan du esparru politiko jakin batek. Izan ere, erreferentteez gain, askok aipatzen dute mugimendu feminista izan dela etxe edo babesgune, baita, haien desira eta identitateak garatu ahal izateko esparru bat.

Batzuek armairutik atera ostean topatu dute bertan komunitate edo taldea, beste batzuek, mugimendu feministaren parte izateagatik deskubritu edo azaleratu ahal izan dute haien lehentasun sexuala.

“Neskakin ibiltzen hasi nintzanin mugimendu feministan nebilen, bilgune feministan. Horrek kriston haizi eta arnasa emantziten” N005

“Mugimendu feministatik eta harreman zehatz batzutatik” N010

“Bai, feminismotik badao komunidadetxo bat, jende suelto bat ezautzezu...” N003

Eta, sarri, hutsune bezala soilik agertu bada ere, balioan jarri nahi izan dute, existitu izan diren LGTBI+ mugimendu antolatuak sortzeko saiakerak eta pausuak ere. Izan ere, hauek ere talde feministak edo emakume taldeen laguntzaz edo bueltan izan dira, eta, askotan mugimendu feminista izan bada ere LGTBI+ aldarrien kargu egin dena, ezin da ahaztu pertsona batzuek pausua eman zutela, saiatu zirela jendea biltzen eta, LGTBI+ mugimendu propioa sortzen.

“Lagunak egiten gara X eta biok, Azpeitikoa, beti gay deklaratu, ezkontza bere senarrarekin, bueno, EHGAMen urte asko militatu izan du eta ezagutu ginen Bilboko baten bitartez ta amistade haundia egin genun. Ta enago oso seguru jaiotzen dan istoria garaiko emakume taldeetatik (ez dakit sorginak ziren edo Bilgune feminista) edo Y ta biok hasten garen muturra berotzen ta joaten gara emakumeengana. Enago seguru. Ta haien laguntzaz, ba, montatu genun hemengo ekainak 28 hori, pixkat kartela egitea lortu genun, manifestua... ta behar genun, ze bi lagun ginen, lesbiana bat eta gay bat, ta behar genun zeoze, nahi genun... ta gure asmoa zen gure moduko jendea elkarrekin... elkartzea, ezautzea... ze nere esperientzia Bizkaira, kanpora beti.” N001

“Gutxi iraun genuen, ez dakit bakarren batek idatzi zuen, baina inor ez zen ausartu inguratzera. Ta hori da mundu guztiak barruan edo isilik bizi zuelako. Baina bueno, intento bat izan zen, ezer etzegoen garaian, zerbait behintzat”. N001

BABESA, EZINBESTEKOA

Bazterkeria, indarkeria, ez-leku sentimenduak gailentzen diren herri testuinguru batean baina, badira aurrera egiten lagundu duten pertsonak, edo espazio seguru bilakatzen diren lekuak ere.

Azpeitian izan dira LGTBI+ pertsonen bidelagunak izan direnak, sarri, haiek jakin gabe ere, keinu, babes, esaldi batek, alboan duten pertsonaren ongizatea ere bermatu duena.

LGTBI+ komunitateari laguntzen dieten horiek, kontzienteki egin dezaketen ekimen bat izan daiteke, edota, haien uste, oinarri eta intuizioz egiten dutena. Edonola, LGTBI+ aliatu gisa izendatu izan dira, eta herri komunitate bat eraikitzerako orduan, ezinbesteko papera jokatu ohi izan dute, LGTBI+ eskubide edo pertsonen alde, edota jazarpenaren kontra pausu bat aurrera emanaz.

Etxea

Batzuentzat etxea eta familia espazio segurua ez dela izan aipatu dugun arren, badira etxean babesa topatu dutenak eta babes hori aurrera egiteko ezinbestekoa izan zaiena. Familiak edota familiako kide batzuk izan ohi dira LGTBI+ komunitate edo pertsonen aliatu zuzenekoak sarri, haiek ere, bazterkeria eratorria jasaten baitute.

“Etxine problemaikpe, sekule eztet problemaik euki.” N015

“Esan nunin kuadrillakukin ta oso ondo ta familikukine bai.” N018

Hala ere, oraindik “sufrimenduaren” kontzeptua bizirik dago eta, elkarriketatu honek oso ondo kontatzen du amari nola azaltzen dion indarkeriaren jatorria soziala dela eta etxeko babesa izanda, kanpo indarkeriari horri hobe aurre egin ahal izango diola.

“Nere gurasoek momentu batin, amak esan ziten, nei berdin dit, zuk nahi dezuna in, baina nei beldurra emateitena da gaizki pasako dezula horrekin, gizartik min emagoizula. Nik aldi berin esaten niyon, nei gizartetik gehien babesten nautena zuek zeate, zuek hauspotzen badezue nire gogo eta desira hori, nei gizartik esango duna ez dit horrenbeste min ingo, etxin babesa sentitzen baldinbazu” N005

Hala, denborak aurrera egin ahala, nabari da gurasoen partetik ere, belaunaldi aldaketa bat dagoela, eta eskola testuinguruan eta abar, gurasoen jarrerak irekitzen doazela ere.

“Guraso batzuen aldetik badago bestelako heziketa batetiko predisposizioa.” E003

Feministak eta LGTBI+ kideak

Aurrez aipatu izan dugu, mugimendu feminista eta LGTBI+ mugimenduak erreferente bezala izandako garrantzia, baina erreferenteez gain, norbanako feminista eta LGTBI+ aktibisten babes zuzena eta baliabideak eskaini izan dizkie beste kide batzuei.

Esaterako, mutil gay baten kasuan, kide feministen presentzia eta inguruak sortutako laguntza ezinbestekoa izan zela aipatzen du, baita bere identitate edo lehentasun sexualak politizatze garaian ere.

“Bai esango nuke, batez ere euki dituten kide feministei esker, ni asko enpodera naizela zentzu hortan eta baitare nere identitadie ere, nolabait politizau in detela, ta horrek eman ditela gaur naizena”. N006

“Ta era berien ba mugimendu feministan ta aritzen zien lagunek eta in nitun ta hori bai izen zala neretzako ba, ni euzautzeko espaziyo bat, jendiek ulertze ziten ze ai nitzen pasatzen eta zentzu hortan nere armairugabetze hori nahiko goxue eta zea izan zan, esango nuke nahiko akonpañae”. N006

Funtzio antzeko bat bete izan dute, kasu honetan, EHGAMeko Mikel Martinek gorpuzten duen figurak, bakardade sentsazio horri aurre egiten laguntzen dutenak.

“Guretzako EHGAMeko jendeakin, Mikelekin eta harremana izatea, ez dakit eraginik eduki duen Azpeitin zuzenean, baino nigan bai, esaten dezu, ez dakit ‘ez gaude bakarrik’. N001

Eta lesbianen kasuan, esaterako, aurrekoek egindako lana medio, sentitzen dute haien arteko babes sare baten existentzia eta elkar ulertu eta topatzeko leku bat existitzen dela.

“Gaur egun herriyen bazterkeria jaso daiteke baina badago ere babes bat eta sare bat horri eusten diona. Garai bateko lesbiania danai eskerrak gaur egun gaude gauden tokiyen eta bollera bezela atea gaitezke, zailtasuak zailtasun, kontuen izenda eskuin muturran diskurtsue nola dabiyeen.” N005

“Komunitatie bea, ezautzie jendie zure bizipenak bizi izan dituna eta errealitatie ezautzeuna eta, azkenien elkar zaintzie da ez? Azkenin hori da gehien lagundu ditena, ingurun euki

deten jendie ta beaieatik ikixi detena ta... erakutsi diben dana ta zaindu nabon guztiye."

N016

Neska kuadrilla

Kuadrillaren kontzeptua eta praktika soziala, askotan espazio zurrun edo indarkeriazkotzat bizi izan dute askok. Baina, kuadrilla bera zein generoko kideek osatzen duten alderatuta, gauza argigarri bat topatu ahal izan dugu ikerketa honetan. Alegia, ia beti, indarkeria edo bazterkeria jaso izan duten kuadrillak mutilenak direla eta aldiz, nesken kuadrillak ez direla soilik izan indarkeriarik gabeko espazioak baizik eta ezinbesteko babes espazioak.

Hala ere, interesgarria da ikustea, kuadrilla dela lehen sozializazio esparrua, eta, nola oraindik garrantzitsua den lehen esparru horren onarpena. Hala, onarpen horrek, aurrera egiteko baldintzak ere sortzen ditu.

"Lehenengo lagunei esan nionin esantziten beak pentsatzezula ta azeptatze zila. Ta hortiken sare bat bezela in nun eta ber izan nun kuadrilako danakin, 31 gea... banan-banan beher izen nun beaien azeptazio hori. Momentu hortan azeptazio esternue beher izen nun."

Babes espazio hau, neska lesbianentzat izan den arren, paper berezia jokatu izan du mutil gayen kasuan, nolabait harrera espazio ere izan direlako.

"Ikusten dana da neska kuadrillie eta mutil bat, homosexuala dana, espazio segurua hor bilatzebe" E002

"Nesken aldetik zentzu hortan euki dot babesa beti, eneban sentitzen mutilek gustatziarren bazterketarik, beti izan da gizonengandik argi ta garbi ta hori aldatu bihar da". N007

"Gero denboriekin gure kuadrille ta nesken kuadrille bat inzan, eta hori netzako kriston salbaziue izan zan ze ya banauken ba espazio bat, ba, lasai eoteko, nere gauzak konpartitzeko..." N006

"Oso babestuta sentitu naiz zentzu hortan [nesken kuadrilla izateaz], eta hitzeitie baitare, nik hori askotan esatet, jo, ba arazo bat dakezunien o, ba askoz, nik nere kuadrillan arazo asko konpartitzeitut". N004

“Laguntza gehiene kuadrilako bat izen da, baita kolektibokue dana ta ordun beakin izen da gehien hitzein detena ta lehenengo pertsonie esan niona ta pixkanaka errezo izentzan asimilatzie dana.” N019

“Suertie euki det nere kuadrillakuk badiela oso buru irekiyek, danak neskak die, ordun, horrek asko errezteu bidia, así tal cual”. N004

Aisia

Aisia eta espazio publikoak aztertu ditugunean, ikusi dugu askorentzat bazterkeria edota indarkeria espazio izan direla askotan. Baina badira batzuentzat berebiziko garrantzia izan duten aisia eta festa espazioak ere.

Esaterako, mutil gay askorentzat heteroarau eta maskulinitatearen eraikuntzan espazio arrotz eta baztertzaila izan den bezala, lesbiana askorentzat, futbolak paper garrantzitsua izan du haien identitatearen garapenean eta komunitatearen eraikuntzan.

“Neskan futbol mailan Azpeitin esango nuke badaola komunidadetxo bat edo zerbait.” N003.

“Futbola izan da nere bollera identitatea garatzeko espazio bat, ondorenera konturatu giñen asko lesbiana ginela, baina garaian ez genuen esaten” N010

Azken batean, herri izaera eta idiosinkrasiaren barruan, beste talde izaera batzuk garatzeko bideak eta lekuak existitu izan dira, irla batzuk, non posibilitate eta normaltasun batzuk bizi ahal izan diren; esaterako, antzerki taldean.

“Inportantea da nere bollera esperientzia horretan taldea, antzerkiaren bueltako taldea, han ere ez zen hain nabarmena baina hazi gara entzuten mutil honek mutila dauka, nik beti esan izan dut neska laguna dakadala. Inportantea da, esan nahi det, urtero-urtero nagolako beraiekin eta nere berri badute eta nik ere badet beraien berri eta askatasun osoz hitz egiten dute honi buruz eta beraiek ezagutzen dute nire bikotea eta nik haienak dituztenean”. N001

Gainera, aisiari lotuta, tabernekin duten garrantzia ukatu ezina da eta, lehenago aipatu gisan, aliatu eta babesa sentitzea ezinbestekoa izan da, baita lan arloan ere. Halako keinuek, LGTBI+ pertsonen sozializazioan paper garrantzitsua jokatu izan du.

“Nik Azpeitin bertan in izan det lana X tabernan, eta bertan bazekieuen mutil transexual bat nintzela, ta lenengo egunien lanea sartu aurretiken nagusiyak esan ziten bazekiyela nere egoera eta norbaitek edozer gauza esan ezkeo guztiz aske erantzuteko, eta gainea, kontatzeko eta beaiek neurriak hartu behar bazien hartuko zituela” N009

Azkenik, jai eta festa erduei dagokionez, lehen atalean aipatzen den isolamendua haustea ere, kanpora joan gabe, gakoa izan da, aisia eta jai-giroaz gozatu ahal izaterako orduan.

“Espazio seguruna okurritzen zat San Inaziotan 30en txosnagunien, erdia kanpoko jendia dalako. Arnasguni da jendi etortzen zaigun kanpotik, horrek lasaitzen du herri hontako klasifikazio extremo hori” E002

DENA ALDATZEN DA

Ikerketa honetan, atzera begirako ariketa kolektiboa nagusitu da. Hau bera, askotan, norberak bere esperientzien berrirakurketa bat egiteko beharrak bultzatuta jaio da, baina baita herriaren argazkiari distantziaren begiradatik ekiteko asmoz ere.

Sarri, irakurketa eta bizipen gogorrak gailendu badira ere, nabari da badagoela egoeraren aldaketaren gaineko kontzientzia bat ere, badagoela aurrerapausoen kontzientzia eta bizipen bat, eta diagnostiko honen zati eraikitzailean sartu aurretik lehen/orain kontrastea egiten duen irakurketan sartuko gara. Izan ere, aldaketa horiek gakoak eman ahal dizkigutelako LGTBI+ ikuspegitik bizi nahi dugun Azpeitia eraikitzerako orduan.

Beraz, bai, badago gauzak aldatu diren sentazio bat, “aurrera” egin izanaren uste bat, batez ere, aurrez bizitakoak kontuan izanda egindako irakurketa batetik.

“Gaur egunin ya normalo ikustea ta eskerrak gañea, aurea jun behar deu, ez? ez atzeaka. Ordun beste egoera bat da ta, gaur egunin normal kakotx artian esango genuke. Gaur egun hobetotxo baino geure gorabeherak pasata geure garaiyin, urte asko die”. N002

Espazio publikoa beregatzen

Espazio publikoa isiltasun eta ikusezintasun espazio izatetik, borrokatu beharreko espazio bezala ikustera pasa da askorentzat, eta marko horretan, garaipen batzuk lortu izanaren sentazio bat ere nabaria da, baita aisia edo kirolean ere.

“Orain normalizatuago dago, kalean behintzat” N001

“Gauzak aldatu dira, bai aldatu dira. Ikusten ditut bi aita umeren batekin kalean [...] edo bi ama 2 edo 3 umerekin. Hori beste garai baten, imposible. Edo ezdakit nor eta ezdakitnor bere neskalagunarekin. Baino nik ikusten det beste modu batera ikusten dela eta lesbiana zarella esatea errazagoa dela, lehen baino. Gaur egun egongo da esaten ez duenik, baina garai batetik hona, begirada lehen morbosogoa zen, orain...”. N001

“Azkeneko lau urtetako ikuspegia zein den ez dakit. Futbol ekipo baten jokatzeko nun lehen, oain asko lesbiana dira eta ama dira, baina duela 14 urte jolasten genunean ez zen hain publikue” N005

Ikusgarritasuna

Arlo honetan ere, aldaketak sumatzen dituzte elkarriketatuek. Kasu honetan, Azpeitiarekin bere horretan baino, oro har gizarte eraldaketarekin, sare sozialekin, kultur adierazpenekin ere lotzen dute. Baina argi dute, bide horretan ezagutza eta onarpen handiagoa nabari dela.

“Askok aldau da bisibildadia bereziki. Oin identifikatzezu jentia, ta sare sozialak hor alde haundiya in debe baitare, eta nik ikustet gaztetxon artien baitare badaola joera bat taldetxo bat iteko edo behintzet beaien artien harremana dakela ta hoi iruitzen zain oso oso inportantia”. N004

“Bai dakat irudipena, gaur egun gehio hitzeiteala, presentzi gehio dakala komunikabidetan, telesailetan... gaur egun arruntagua dala LGTB komunitatekua izatia” N009

“Gaur egun gehio dakizu ‘hau gay da, hau lesbiana da...’ nere garaian, ba etzauen, ez zan ikusten behintzet” N009

“Esango nuke batetik bisibildadia gehio daola, tolerantzi gehio daola, ta baitare ta oin arte guretzat hiper ezezagunak zien kontzeptu batzuk, ba, adibidez ‘ez bitarra’ edo transexualidadia ere askoz onartuago daola” N004

Gazteak, aldaketarako gako

Azpimarratzekoa da ikusgarritasun eta erreferentzialtasun horretan, haustura gazteen eskutik ere badatorrela. Nabaria da belaunaldi berriek duten jarrera eta bizipena aldatu egin dela, eta haiengandik ere asko jasotzen ari direla.

“Gero espresioa, eskutik joan, muxu eman... gaztetxoagoak agian bai, edo gauean, bueno ni gauean ez naiz ibilitzen...” N001

“Ordun, gaur egunien iruitzen zait zenbait gazte ba adierazpen hortan, eztakit, identitatea gehiokin atezteizela, askio bezela, baino zenbat eongoan ixkutun ebai”. N008

“Ezautzen ditut oin marikita batzuk askoz be irekixago, normalago bizi dabenak eta, tipo bat 16 urte euzkana azkazalak pintauta ta hola, ta nik esate neban aber hori nire garaixen eske inpensable, eske jentia gainera etorriko jatzun”. N007

Faktoreak

Beste faktore batzuk ere lagundu dute bidea egiten. Azpimarragarriak dira bai politika publikoak zein mugimendu feministak egindako lana. Baita ere, eskoletan egiten den lana azpimarratu nahi izan da.

“Aipau nahiko nuke azken urtietan prespektiba hori zabaldu dala, nik uste martxan jarri dien politika publikuei esker ta herri mugimenduei esker bueno ba Azpeitin nik uste pixkat irikiyok bageala eta herri bizigarriyo baten bidian behintzet aurrea pausu batzuk in diela”. N006

N006

“Nik uste egoera hobetzian faktoriek izan daitezkeela mugimendu feminista eta eskolan ere in dien tratu honen ikastaruek eta bueno, nik uste oro har gizartien pauso batzuk in ditula aurrea berdintasunen bidien” N006

5.3. Nolako herrian bizi nahi dugu?

Identifikatutako behar, indargune eta erronkak

“Batzuk uste dute gai hau bakarrik LGTBI+ pertsonena dela, ez herri guztiana”

E002

Ikerketaren amaieran, elkarrizketatuekin jasotako beharrak, erronkak eta ametsak jaso ditugu, izan ere, pertsona hauek guztiek bizipen horiek guztiekin, azpeitiar bat gehiago ere badira eta, hortaz, bizi nahi duten eta ingurukoek bizitzea nahi duten herria eraikitzen ezinbestekoak dira.

Azken atal hau izango da, ondoren neurrien diseinurako ataria. Hemen ez dira neurri zehatzak jasoko, baizik eta, aurrera begira desio duten herri baten koadrorako lehen kolore gamak.

Garrantzitsua izan da, bide hau egin ostean, aurrera begirako ilusio eta nahiak batzea ere.

TALDE ANTOLAKUNTZA

Azpeitiako errealitate sozial eta politikoari begira, argi geratu da, saiakeraren bat egin bada ere, ez dela sekula LGTBI+ borroka ardatz duen talderik izan. Elkarriketatuek hutsune handi gisa bizi dute hau bera. Izan ere, azken urteetako aldaketa positiboek ba lortu dute elkar identifikatu ahal izatea, gehiago direla jakitea, baina hortik antolatzerako pausua ez da eman.

“Azpeitin bikote lesbiana asko daude, ama dianak, baina gero mugimendu bolleruak ez det oso bizirik sumatzen, ez dago krikita bollerorik” N005

“Lagun batek esateit, Azpeiti dala metro karratuko lesbiana gehien daon tokiye, baino antolatuta nik jakin jakin eztakit badaon” N014

“Nik Azpeitik mugimendu feministan militatu izan det, oso indartsu egon da hemen urte batzutan, baina LGTBI+ ikuspegitik konplizek bota ditut faltan”. N005

“Bollera batzuk bagaude, saretu eta antolatu gabe, baina marikarik oso gutxi, eta transik erez” N010

“Ez gea biltzen, nahiz bai juntatze geala batzutan, bai sentitzezulako afinidade bat, parrandan edo. Baino hola, leku formalak, esango nuke, o mugimendu o burruka aldetik o hola, herri mailan eztaola”. N008

“Oain dala urte asko, ustet entzun izan detela, elkarte LGTBren bat edo bazeuela, edo zerbait sortzeko asmue, baino nik ez det halako ezer ezautu” N009

“Badakigu bagaudela. Komunitate bezela ez gea gelditzen.” N015

Haien desira eta beharren inguruan galdetuta ordea, talde eta kolektiboaren beharra ezinbestekotzat hartzen dute. Izan ere, askok oraindik ez dakite zein de Azpeitiako LGTBI+ errealitatea, ez dira inoiz ofizialki elkar batu eta askok ez dute elkar ezagutzen.

“Gure artin saretzie, igual garrantzitsuo dala ta hola benetan ikusiko genun zenbat jende daon atzien, ze nik eztakit benetan zenbat jende ai dan parte-hartzen diagnostikuen, zeinek hitzein dun o zenek ez,... igual gure artin ezautuko bagine, kalin ikusi ta igual

*enpoderamendu gehio edo elkar ikustie ta... igual barruko gauzak in beharko liezke gehio,
elkarri bizipenak kontau. Zeoze gehio baino barrura beire.” N003*

*“Benetan ulertze zaitun jendie hori da, benetan hitzein dezakezuna libre, eztakit. Ta hemen
banaka banaka ezautzet jendie baino taldeik eztao ta nik hoi botatzet faltan, kolektiboko
taldetxo bat, gauzak konpartitzeko, ze neretzat gogorra izan zan herrire buelta ta ez ezer
aurkitzie, adibidez ligatzeko beste formula batzuk aurkitu ber nitun” N004*

*“Beharrik haundiyena kolektibizaziyun ikustet, elkar juntatzie ta ikustie ze behar dauzken,
ez indibidual bezela, kolektibuen juntatzie ta ikustie ze behar dauzkeun. Zaintza sariak
sortzie elkarren artien ta hortik abiatzie politikak sortzen.” N016*

*“Ustet militantzi politiko asko falta dala komunitatien zentrauta eztao asoziazioik, ezteu
manifestazioik iten nik dakitenez. Eta alde hortatiken pixket tristie iruitze zait.” N016*

*“Ze bai politika beti interesau zaitela asko baino inoiz ez det topau nere lekue militantziyen,
ta bai uste det dala ba nere, bueno ez detelako borroka hori topau, ta aukerak eztielako
igualak herri baten o hiri baten” N004*

GIZARTE ETA FAMILIA ANTOLAKUNTZA

Oraindik antolatu ez badira ere, badaude haiengan indibidualki galdetuta kolektiboki errepikatzen diren hainbat ideia ere. Esaterako, familia eraikuntzen buelta, antolakuntzaren bueltan...

Bada hala ere kezka zein aldarri bat, batik bat adinean nagusiagoak direnak adierazten dutena, hain zuzen LGTBI+ kolektiboaren zahartzaroz, adin horretako ikusgarritasunaz eta zaintza sistemez arduraz hitz egiten duena.

“Gauza asko aldau die baina agian gure adineko jendeantzat, lesbiana helduak inbisibilizatuta daude. Helduagotan zailago da gu bezelako jendea ezagutzie” N005

“Mugimendua oso bideratuta ikusten dut gazteengana eta uste dut arazoa dela nola heldu adin gehiago dutenengana.” N012

“Nik nahiko nuke helduak egiten garenean, zergatik ez, auzo bat, non bizi gaitezken bi emakume, zortzi, hamar... lasai, halako auzo bat...” N001

Beste batzuen kezka ere ohiko familiarik at bizitzeko aukera eta ereduaren artean dabil, kolektiboan ez bada ere, bakarrik bizitzeari lotuta, baina baita aisia eta bizi ereduari lotuta ere.

“Etxebizitza daude bideraute familita, ezin dezu bakarrik bizi” E002

“Familiarik ez badaukazu planik gabe geratuko zera, ez dago hortik kanpo aisialdirik” E002

EUSKARA ETA EUSKAL KOMUNITATEA

Argi dagoena da, Azpeitiako indargune eta harrotasun elementuetako bat, herriaren euskara arnasgune izatearena dela. Ikerketa honetan arlo honi bereziki erreparatu nahi izan diogu, izan ere, aurrera begira eraiki nahi dugu herria pentsatzerakoan hainbat gako aurkitu ditzakegu herrian hain identitataria den euskararen erabileran zein euskalduntasun identitatean.

Haientzako euskara zer den galdetzetik hasi ginen.

“Azpeitiarra izenda ezteu pentsatzen beste hizkuntza baten, euskerie da dana.” N003

“Euskerie beti eon da militau izen detenien. Ezta borroka bat bezela ikusi, ezta zalantzan jarri inoiz.” N003

Euskalduntasun izaera horrek garrantzia handia du elkarriketatuengan, baina LGTBI+ kolektiboko kide bezala identifikatzearekin alderatuta, zer gurutzaketa ematen dira?

“Pertsonak bakoitzek identitate interseksionala dauke, gu geanak iten gaituztenak eta nahiz ta egiye izan euskeraz ezteela euki edukaziyo parte hau edo militantzi parte hau euskaldune izeti ta euskeri nere ama hizkuntza izetie nere identitatien oso parte inportantie da.” N016

“Nere euskaldun identitatie ta nere LGTBI+ militantziye ikutzeie, nere identitatien parte inportantiek die biyek.” N016

Hortaz, euskaldun izatea norberaren identitatearean parte garrantzitsu bat da, eta baita LGTBI+ kolektiboko norbait izatea, baina elkartzen diren momentuan, posible al da? Batera funtzionatzen al dute?

“Jendeak euskalduntasuna eta LGTBI+ borroka modu paraleloan, neutralen baina apartekoan ikusten du” N017

“Orokorrin ingurue euskaldune bada euskeraz, baina gehienetan gazteleraz.” N015

“Azpeitin dana euskeraz, lagunekin euskeraz, familiyakin euskeraz, baino ez det kolektibuakin lotzen euskerie” N014

“Hizkuntzak eta [LGTBI+] komunitateak eztauke zerikusik, biak die nere parte bane eztitut korrelazionatzen. Eztitut lotzen.” N015

“Lesbianismoa gazteleratik jaso nun hasieran, Granadako topaketengatik eta Medeak-ek Donostiko Emakumeen Etxean antolatzen zituzten tailerengatik. Guri kastellanua asko kosatatzen zitzaigun hitzeiten eta ez genun apenas parte-hartzen, askotan ixildu izan naiz gaztelera ez hitzeitetiken” N005

“Beharabda inkontziente euskalduntasuna zerbait itxi moduan ulertu izan det eta gaztelerara jo izan det, baina ez modu kontzientean” N013

“LGTBI+ kontuetan euskeriek uste det ez dula gehiegi topau” N005

“Nahiko nuke ez pasau izan bihera erderatik, ze nik horrekin asko sufridu dot, ze ni oso euskaltzalia naiz eta gainera erdera ez dakit ondo, eta lehenengo euki nebanian gure kolektibuakin harreman zuzena, dana zan erderaz, dana zan oso pijua... ta ni han nengoen oso arrotz. Gero deskubridu nuna mundu ezkertiarra, ba Basati Queer-en, ta oso ondo baina dana erderaz”. N007

“LGTBI+ inguruan zerbiat idatzi beharko banu esukaraz hitzak faltako zitzaizkidan, piskat kostatuko zitzaidan” N013

Oso esanguratsua eta garrantzitsua iruditu zaigu elkarrizketatuek haien buruak definitzerako momentuan beraien ezinbestekoak diren bi nolakotasun eta praktikek, gero, errealtatean, egurrekoan ia ez dutela elkar ukitzen ikusteak.

Honek, herri mailan ere bi munduen urruntasuna ulertzeko balio digu, alegia, Azpeitiaren izaera garrantzitsuenetako bat euskalduna eta arnagune izatea izanik, eta hori bera ez badute LGTBI+ kolektiboko pertsonak ere LGTBI+ errealtatearekin lotzen, disoziazio erabatekoa ematen da.

“Herriak orokorrian loturarik gabe ulertzen ditu, bi gauza solte bezela” N010

Euskarari errefusa

Hala ere, pentsakera eta uste honek, eta zure bizitzako parte handi bat euskaraz garatu ezin izateak, zein kideek herrietan bizitako LGTBIfobia herriarekin berarekin eta bertako balioekin lotzea, kasu honetan, euskararekin, halako euskararekiko errefusa bat garatzera eraman ditu asko.

“Hemen, oso euskaldunek geran hontan, igual LGTBI+ mundua urrun geratzen dala pentsatzen dute, eta horrek ez du errazten politizatzie LGTBI+ pertsona bezala” N005

“Badakit bi marikak herrikin moztu zutela, eta inklusio Euskal Herrikin hasarre bakarren bat” N010

Baina noski, errefusa hori alde bikoia izan daiteke, euskararen munduak ere, denbora askoan bizi ahal izan baitu LGTBI+ mundua berekin ez doan zerbaiten gisan.

“Ezinbestin batea jun behar diela, baina ustet euskalduntasunan kokatzen dan jende asko ez du honen parte sentitzen” N017

“Euskaldun fededune perfil hori emateu ya ez dagola, baina asko dago” E002

Eta errepikatzen den beste elementu bat, herriko idiosinkrasiaren analisiarekin batera, euskalduntasun horretan gizontasunak jokatzen duen papera izan da, eta honi lotuta, LGTBI+ komunitateak gizontasun hori zalantzan jartzeko duen gaitasuna.

“Hizkuntzak botere handia dauka guregan, gizonak botere handia daukate hor ere.” N012

“Gizontasunetik batzutan badago, batzutan esanda, eta beste batzutan esan gabe, uf, honek ikutzen dizkigu gure euskaldutasun eta gizonatsuna, gure benetako oinarriak. Modernidade, kanpotik datozen peligrora hauek, nik uste gizon batzuk horrela bizi dutela gure inguruan” N010

Dena den, bada banatuta ikusten ez dituenik eta argi duena, bide beste nonbaitetik doala.

“Problema ez da euskalduntasune eta LGTBI+ uztartzie, baizik eta LGTBI+ uztartzea Azpeitikin” E002

Bi mugimendu elkar-elikatzeko gai

Hala ere, honek berak potentzialitate bat adierazten digu, eta badira beste era batera bizi dutenak edo behintzat bizi nahi dutenak, alegia, LGTBI+ komunitateko kide euskaldun gisan.

“Azpeitian bi perfil daude, uste dutenak batera jun behar direnak eta gurutzatuta daudela, eta uste dutenak bi gauza aparte dianak eta ez dutela harremanik” E002

“Ustet azken aldian elkarrekin dijuztela euskerie ta komunitatie. Lehen gaztetan oso kontran zetorren, gero 30 urtekin edo hobeto. Orain euskerie ta ondo dijuzte.” N018

*“Jende asko dago LGTBI kolektibokua eta euskalduna eta gose hori dauka, hola bizitzekua”.
N007*

“Ez dakit LGTBI+ mugimenduai euskerie falta zakon edo euskeriei LGTBI+ ikuspegie” N005

“Euskara eta LGTBI borroka ez ditut talkan irudikatzen, baina batea ere ez. Garain batean feminismoa ere asko iten zan erderaz eta Bilgune Feministak lan handia in du feminismue euskeraz izeteko.” N005

“Ez ditut kontraesanean irudikatzen. Gero kontziente naiz bat besteai gainjarri zaiola, zein dira gure lehentasunak? Beti nazio-identitateakin lotutako borrokak eta gatazkak izan dira, baina niretzat eskutik jun behar dute, eta izan behar da euskaraz eta euskaratik” N010

“Euskalduntasune nik ya eztet lotzen lehen iten zan bezela zerbait arkaikue bezela, baizik eta aurrerakoie” E002

“Euskera mailan edo azkenien Bilgune Feminista, feminismue, bollerismue oso indartsu eon dala Euskal Herriyen. Oin Itaiakin eta eztakit generaziyo berriyek, ze ezezagutza haundiye dakebe Queer mundutik eta... Ordun esango nuke euskeraz, feminismue ta emakume izaera hori asko landu detela euskeraz eta bollerismue re bai. Esango nuke sartzekotan Noka ere, Azpeiti mailan feminismuen ezautu deten jendiekin Noka erabili det.” N003

Hortaz, gose, behar eta errealitate honi erreparatzea ezinbestekoa izango da herri mailan LGTBI+ errealitateak lantzerako orduan.

HEZKUNTZA

Hezkuntza da, dudarik gabe, LGTBI+ gaien bueltan ari garenean identifikatutako behar, eraldaketa espazio eta potentzial duen leku, zein kezka iturri ere.

Elkarriketatuek, adinaren arabera, batzuek ez dute gogoratzen formakuntzarik jaso izanik LGTBI+ gaien inguruan, beste batzuek, gogoratu arren ez dute markatu zituen zerbait gisa gogoratzen.

“Ikastolan ez degu jaso LGTBI+ formakuntzarik. Hezkuntzan jarri behar da indarra.” N017

“Umetatik hastie, txikitatik hastie gauzek iten, eskolatan bisibildade gehio... beak erabaki beher du in o ez, baino bai hortik jutie. Umik behar debe informaziyue, guk ez genun jaso informaziyue eskolatik. Hobetu da gauzie baino askoz gehio beher da. Informaziyo anitze.”

N015

Egun, hezitzaileek ezagutza gehiago dutela ere jakina da, nolabait formakuntza horiek jaso dituztelako.

“Hezitzaileen eguneroko begirada aldatu egin da batez ere. Jaso ditugun formakuntzengatik eta presenteago dagolako. Hekidetzak ere pisua izan du” E003

Hala ere, garrantzitsua iruditzen zitzaigun, eskolatan zer jaso eta landu beharko litzatekeen jakitea. Ondorengo gaiak azpimarratu dituzte.

“Oro har sentsibilizaziua esango nuke, bai ikastetxetan bai herritarren artien. Lumafobian asunto horrek ere asko kezkatzen nau, bai. Ustet molestatzeari hori dala orientaziyunak baino. Ni hortaz kontura naiz ze nere kasun behitzet hola izan da, berdin du ni zeinekin nagon”. N006

“Gizartien zehar esango nuke inportantiena dala edukaziyue, jendik ezautzie errealitate diferente hauek eta tratatzen ikastie ta jakitie patologizaziyoik gabe, bazterketaik gabe ta azkenin edukaziyotik hastea hau dana ta eskolatan ta ikastolatan da hortik hasi beharko ginake.” N016

“Paradigma aldaketa bat eman behar da eragile guztien artean, asko zentratu gera prebentzioan, baina gorputzen anizatasunean eta askatasunetan jarri behar degu indarra eta gure jardun eta esku-hartzeetan txertatu” E003

EPILOGOA: AMETSETATIK EKINTZETARA

Ikerketa honetan parte hartutako kideek, LGTBI+ pertsonentzako Azpeitia herri bizigarri bat izatea dute helburu. Batzuk urrunago eta beste batzuk gertatzen ari den zerbait bezala bizi dute.

Edonola, prozesu honetan guztian, 32 lagunek haien ahotsak, minak, beharrak, aldatu nahiak eta desirak jarri dituzte mahai gainean. Emandako guzti hori balioan jartzeko modu bat izan daiteke, lehen atalean adierazten zuten Azpeitiaren irudi horretatik, aurrera begira desio duten Azpeitia horretara bidea egitea izan daiteke.

Horregatik, desira eta behar sorta honekin amaitu nahi genuke.

“Nere beharrak? Tentsiyo momentuik ez bizitzie, lasai bizitzie, sozializatzie. Ez sentitzie juzgauta, nere ondun daonak o ikustetenak ez jasatie inungo erasoik. Ez markau, ez etiketau, lasai, aske eotie ta ez tentsiyuen”. N008

“Babesa. Zalantzan ez jartzea. Herrian komentarioak ez entzutea. Begiradarik ez sentitzea. Errespetua pertzibitzea. Beldur, behar emozionalak eta aisialdirako sareak izatea”. U001

“Nere ametsa da sexilioakin amaitzia ya”. N007

“Nolabait bidelagunak eukitzie iruitze zait oso beharrezkue, ez dakit bidelaguntza hori zeinek eskaini behar dun, instituzioetatiken eskaini behar dan zerbait dan edo komunidadiak zerbait antolau behar dun. N006

“Datozen generaziuek aske bizitu ahal izatie herriyen, ez kanpoa erten behar izatie beste mundu bat badala ikusteko” N008

“Beharko luke leku bat juntatzeko, harremanak, jendie ezautzeko, edo informaziyue hartzeko. Hori re falta da ta” N002

“Ba adibidez, dirue inbertitu formakuntzan, edo hitzalditan edo... ta bueno, diagnostiko bat oso inportantie da” N004

“Holako gauzak, herriyan gertatzen dien gertakari hoyei falta zagula tresnak edo baliabidek edo erantzuteko. Nola erantzun baitare, kolektibo bezela” N008

“Eztakit udaltzainek eta ze mailataino dauden formauta gai hontan, baino iruitzen zait udala dala lenengo instituziyue, gertuna daona herritarrengandik eta ustet eon behar dula formauta eon daitezken gertakari eraso ta abarrien aurrien erantzuteko, ta ustet gaur gaurkoz hor hutsune haundi bat daola” N006

“Kontuan izanda pertsona transexualen langabezi maila oso altue dala, alde batetik formakuntza, ze azken baten zuk bulline jasan bazu, askotan graduauae ateatzezu justo justo, ta horrekin zailtasunak izango dituzu lana topatzeko” N009

“Indarkeria matxistan kasuan itten dan moduan, telefono bat eukitzia ere ondo egongo zan” N007

...

“Eta jasotzie, jentien esperientziak, bizipenak, herri hontan pasa dien gauzak... ze herri hontan, gauza asko pasa die”

6. ORDUAN, ZER?

Neurriak

Jarraian, aurreko atalean azaleratu diren hutsune, behar eta korapiloak aurre egiteko neurrien bilduma proposatzen da. Neurri hauek, udal-gobernuarekin, teknikariekin eta langileekin elkarlanean sortuak izan dira.

Neurrien arduradunak nor diren zehaztu da eta, epeari dagokionean, lehentasun eta egingarritasunaren arabera zehaztu dira. Jakitun gara, ordea, baliabide humano eta ekonomikoek baldintzatuko dutela horien aplikazioa, baina garrantzitsua egiten zaigu azpimarratzea bihurtik aurrera LGTBI+ pertsonen bizitzak hobetzeko zenbat aukera dauden.

Azkenik, adierazleak ere definitu dira, hau da, neurri horren jarraipena eta balorazioa egin ahal izateko neurgailu zehatzak.

LEHENTASUNEZKO NEURRIAK		
Neurriak / Ekintzak	Arduradunak / Sailak	Adierazleak
1.2.b Eraso LGTBIfobikoak artatzeko protokolo bat sortu.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak Udaltzaingoa Gazteria Hezkuntza	Protokoloaren sorrera Sorreran parte hartu duten pertsona kopurua. Kontuan hartu dituen espazio kopurua
1.2.d Protokolo horren osaketa eta koordinaziorako espazioa sortu zinegotziak, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak, parekidetasun saila eta beharrezkoa den bestelako sail, eragile edo agente batuko dituen.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak Udaltzaingoa Gazteria Hezkuntza	Koordinazio mahaiaren sorrera Parte hartu duten sail kopurua Bilkuren maiztasuna
1.2.e Indarkeria LGTBIfobiko kasu bat ematen denean komunitatean izan dezakeen inpaktua kontuan hartu eta horren arabera esku-hartze komunitario baten diseinurako agenteen espazio bat ahalbidetu.	Herriko eragileak Herriko LGTBI+ komunitatea Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak	Espazioaren sorrera Parte-hartu duten pertsona kopurua. Herrian izan duen inpaktu maila.

		Asebetetze maila
1.2.f Protokoloan bikote ez-heteroarautuetan eman daitekeen indarkeriaren kudeaketarako irizpideak txertatu.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak Udaltzaingoa	Irizpide kopurua
2.1.a LGTBI+ memoria jasotzeko plangintzatzea egin eta bitartekoa definitu (Dokumentala, liburua, ipuina, ilustrazioak...)	Parekidetasuna Euskara Kultura Herriko eragileak Herriko LGTBI+ komunitatea	Plagintza egin da bai/ez Bitarteko kopurua Parte hartu duten pertsona kopurua Bitartekoa irtsi zaien pertsona kopurua
2.2.a Urteetan zehar jasotako indarkeria eta bazterkeriaren errekonozimendu eta babeserako udal-ekimen bat antolatu.	Parekidetasuna Kultura Herri eragileak LGTBI+ komunitatea	Ekimenaren antolaketa Parte-hartzaile kopurua
2.2.b Jasotako indarkeria eta bazterkeria kasuak jaso eta hezkuntzan aplikatuko den unitate didaktiko bat sortu.	Hezkuntza Gazteria Parekidetasuna	Unitate didaktikoaren sorrera Jaso duten gazte kopuru
3.1.a LGTBI+ banderen presentzia herriko kaleetan eta eraikin publikoetan.	Parekidetasuna	Bandera kopurua
3.1.h Heteroarautik kanpo bizi diren herriko pertsonekin armairuaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat abiatu.	Komunikazioa Parekidetasuna	Sentsibilizazio kanpaina egin da bai/ez Parte hartu duten pertsona kopurua. Jaso duten herritar kopurua.
3.2.b Puntu ilun eta tentsionatuak erosoago bihurtu, argiztapena aztertu.	Hirigintza Parekidetasuna Udaltzaingoa	Argiztapena egin da bai/ez

		Espazioa moldatu da bai/ez
3.2.h Egun seinalatuetarako LGTBI+ kolektiboren aldeko bereizgarri estetiko bat sortu espazio publikoan presentzia izan dezan eta herriko norbanakoek eraman dezaketena (Txapa, pegatinak...)	Parekidetasuna Festak Komunikazioa	Bereizgarri kopurua Bereizgarrien zabalpen maila Jantzi duten herritar kopurua
4.1.a Festetarako erasoen aurreko protokoloa sortu LGTBI+ ikuspegia barneratzen duena.	Berdintasuna Kultura Festak Udaltzaingoa Herri eragileak Tabernarien elkarte	Protokoloaren sorrera Parte-hartzaile kopurua
4.2.a Kultur programazio eta aisialdi gune inklusibo, anitz eta parekideak (LGTBI+ artista eta erreferenteak ere txertatzea programan) bermatzeko irizpideak zehaztu.	Kultura Kultur-mahaia Herriko kultur eragileak Festa batzordea Sortzaileak	Protokoloaren sorrera Irizpide kopurua eta nolakotasuna
4.3.b LGTBI+ begirada eta pertsonak kontuan hartzen dituen aisialdi eta festak antolatu herriko kulturgune eta aisialdi espazio nagusietan.	Kultura Parekidetasuna Herriko eragileak	Aisialdi eta festetako ekintza kopurua Ekitaldi horiek egin diren espazioak
4.4.e Elegante egunean zezena Erdikale kalean ateratzen denean bertan parte hartu nahi ez dutenetzat beste espazio batean LGTBI+ ikuspegia izango duen eskaintza programatu.	Kultura Herriko eragileak Festa batzordea Herriko LGTBI+ komunitatea	Alternatibaren espazioa Alternatibaren dimentsioa Ekintza kopurua
5.1.b Emakumeen txokotik LGTBI+ pertsonak elkartu eta saretzeko programazioa antolatu.	Parekidetasuna	Programazioaren sorrera Ekintza kopurua Parte-hartzaile kopurua
6.4.a Udaltzaingoa LGTBIfobia kasuen aurrean nola jardun eta horiek artatzeko irizpideak zehaztu.	Gizarte zerbitzuak Parekidetasuna Udaltzaingoa	Irizpideen sorrera Irizpideen kopurua

7.1.a Hezkidetza proiektuaren baitan heziketa sexuala lantzen denean LGTBI+ ikuspegia txeratzeko aholkularitza bat programatu.	Parekidetasuna Hezkuntza	Aholkularitzaren sorrera
8.1.a Eskoletan dagoen bullying protokoloetan LGTBI+ ikuspegia txertatu horri dagokion indarkeria identifikatu eta esku-hartze zehatzago bat diseinatzeko.	Parekidetasuna Hezkuntza Eskolak	Ikuspegia txertatu da bai/ez Esku-hartzearen sorrera
8.2.d Eskola garaian botere eta jarrera oso heteroarautuak zituzten, baina egun LGTBI+ kontzientzia handiagoa hartu duten herriko norbanakoekin esku-hartze programa bat diseinatu, haiek hezkuntza espazioetan sar daitezen.	Hezkuntza Parekidetasuna Gazteria Herriko eragileak	Saioen sorrera Saioen kopurua
8.2.e Herriko LGTBI+ memoria lantzeko unitate didaktikoa hezkidetza proiektuaren baitan txertatu.	Hezkuntza Gizarte Zerbitzuak Parekidetasuna Gazteria	Tertatu da bai/ez
8.3.a Azpeitiko hezkidetza programa LGTBI+ ikuspegitik berrikusi eta LGTBI+ errealitate eta gaiak transbertsalizatzeko metodologia sortu.	Hezkuntza Gazteria Hezkidetza mahaia Parekidetasuna.	Metodologiaren sorrera
9.2.a Kirol Klubei zuzendutako sentsibilizazio eta formakuntza.	Kirola	Formakuntzaren asebetetze maila Parte-hartzaile kopurua
9.3.b Trans pertsonen errealitate eta beharrak kontuan hartuko dituen aldagelen berrantolaketa eta egokitzapena egin.	Hirigintza Kirola	Berrantolaketa gauzatzea Egokitzapen kopurua Egokitasun maila
11.1.a LGTBI+ neurriak gauzatzeko esleitzen diren dirulaguntzetan hizkuntza klausulak ezarri.	Idazkaritza Udaleko administrazioa Euskara	Klausulak txertatzea Klausula kopurua

12.1.a Udaletxeko langile guztiek LGTBI+ ikuspegia euren egunerokotasunean txertatzeko, bakoitzari dagokion arloari egokitutako formakuntza eta sentsibilizazio plana osatu.	Udaletxeko langile guztiak Udal gobernua Parekidetasuna	Formakuntzren asebetze maila Parte-hrtzaile kopurua Sail kopurua
12.1.b Udaleko inprimaki eta dokumentu administratibo guztien azterketa eta egokitzapena, lengoaia inklusiboa txertatu, genero marka bitarra ezabatu eta bestelako aukerak zabaltzeko.	Udaletxeko langile guztiak Udal gobernua Parekidetasuna	Azterketa egitea Dokumentazioaren egokitzapena
12.2.a Hizkuntza inklusiboa txertatu udalaren komunikazioan.	Komunikazioa Euskara	Erabilpen irizpide kopurua
12.2.d Udalaren komunikazioko iruditegia LGTBI+ ikuspegitik berrikusi eta heteroarautik at kokatzen diren pertsonen errepresentazioaren kuota minimo bat ezarri.	Komunikazioa	Berrikuspena egin da bai/ez Kuota minimoa ezarri Errepresentazio kopurua
12.4.b Udala eta LGTBI+ kolektiboaren arteko koordinazio, elkarekintza eta antolakuntzarako LGTBI+ mahia sortu.	Parekidetasuna LGTBI+ kolektiboa	Koordinazioaren sorrera Bileren maiztasuna Parte-hartzaile kopurua
12.5.d Neurrien plangintza, dinamizazio, aplikazio eta kudeaketa egiteko kontratazioa egin.	Udala	Kontratazioa gauzatzea Ordu Kopurua Espazioa / Kokapena